

Tokiko Politika Publikoetatik Bizimodu Jasangarrietarantz



Egileak:



Finantziatzen dute:



Diseinua eta maketazioa: Alejo Moreno Sainz

Azaleko jatorrizko ilustrazioa: rawpixel.com/freepik.com

2020ko maiatza



Aitortu - Ez Komertziala - Lan Eratorririk Gabe 4.0 Nazioartekoa
(CC BY-NC-ND 4.0)

Lizentzia osoa: <https://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/4.0/deed.eu>

Honako gida hau 2020ko maiatzean bukatu zen, COVID-19ak sortutako alarma-egoera artean indarrean zegoela. Krisi horrek agerian utzi du eraldaketa sozialaren aldeko hainbat ikuspuntutik argudiatutakoa, eta gida honen testuingurua osatzen duena: bizimodu kolektiboak eta planetako bizitzak krisi sakona bizi dute. Halaber, gai asko ikusarazi ditu krisiak, jarraian aipatzen ditugun proposamenak elikatzen eta sostengatzen dituztenak: bizitza ezin dugula ontzat eman, baizik eta aktiboki zaindu behar dugula; eta osasuna eta ongizatea interdependentziaren eta ekodependentziaren errealitate bat direla. Hori onartu ezean, bizitza bera arriskuan jartzen dugu, ez ditugu egitura kolektiboak garatzen bizitzari elkarrekin aurre egiteko, eta bizileku dugun ekosistema suntsitzen dugu.

Krisi honek zenbait galdera sortu dizkigu, orrialde hauetan jasotzen ditugunak: zeintzuk dira funtsezko lanak, eta gaur egun nola balioesten (gutxiesten) ditugu? Nola bermatu energia- eta elikadura-burujabetza, eragiteko gaitasunik uzten ez diguten urruneko prozesuen mende ez egoteko? Nolakoak dira gure etxebizitzak, konfinatuta egon garen horiek? Nolakoak dira gure auzoak, eta zenbateraino dira bizigarriak gure inguruko lurraldeak?

Etorkizun hurbilean, ziurrenik, hemen proposatutako bideetako batzuetatik igaroko dira aldaketak. Gure ustez ezinbestekoa da birlokalizaziora jotzea, eta ondorioz, hurbileko erakunde publikoek protagonismo handiagoa izatea. Ez dakigu aurrerantzean zer gertatuko den, baina esan dezakegu COVID-19aren osteko urgentziak ez dituela zapaldu gida honetako edukiak; aitzitik, egoerak indartu egin ditu. Izan ere, eta hori posible bada, proposamen hauek are premia handiagoa dutela ikusi dugu.

Edukia

1. Gida hau: zergatik eta zertarako	7
2. Zer aldatu nahi dugun, eta norantz: Trantsizioaren ardatzak	9
2.1. Jasangarritasun ekologikoa	10
2.2. Ekonomiaren birlokalizazioa	12
2.3. Denon arteko erantzunkidetasuna	13
2.4. Lanak berrantolatu	14
2.5. Demokratizazioa	16
2.6. Trantsizioaren ardatzak elkar gurutzatzen	17
3. Udalerrietatik	21
3.1. Eskala estrategikoa	21
3.2. Jarduera-eremuak	22
3.3. Jarduteko printzipioak	22
4. Neurri eraldatzaileak	25
4.1. Oinarrizko tresnak	26
4.1.1. Parte-hartze erreala	26
4.1.2. Politiken koherentzia	27
4.2. 1. neurria: Energia positiboa duten lurraldeak	29
4.3. 2. neurria: Merkaturatze-zirkuitu laburrak	35
4.4. 3. neurria: (Des)adostasunak erantzunkidetasunagatik	42
4.5. 4. neurria: Ekonomia sozial solidario eta eraldatzailea	47
4.6. 5. neurria: La igualdad de género en el centro de la democratización	55
4.7. 6. neurria: Elikatzen duten lurrak	61
4.8. 7. neurria: Zaintzarako espazioak	67
5. Etorbizunera begira	75

1. Gida hau: zergatik eta zertarako

Gida honek jarraipena eman nahi dio hainbat kolektibo eta antolakundek osatutako Desazkundea eta Bizitze Ona Sarearen lanari. Sare hori 2011n hasi zen, *Desazkundearen eta Bizitze Onaren I. Topaketak: Alternatibak irudikatzen* izeneko topaketekin. Lan horren ardatza egungo ereduarekiko alternatibak bilatzea izan zen; izan ere, egungo eredia, bidegabea eta jasanezina izateaz gain, krisi sistemiko sakona bizitzen ari da, eta baliabideak agortuta, saihestezina da bestelako eredu baterantz jotzea. Kontua honakoa da: nola jo bizitza erdigunean jarriko duen eredu sozial justu, jasangarri eta bidezko baterantz? Kolektiboki idatzitako [Euskal Herri-tik kolektibotasunean eraikiz](#) dokumentuan, 18 antolakunde sozialek baino gehiagok parte hartu zuten; bertan, proposamen eta aldarrikapen sorta jasotzen da, “bizimodu jasangarrietan oinarritutako jendarte justu eta bidezkoa” eraikitze bidean aurrera egiteko. Proposamen horiek lau dimentsioren arabera sailkatzen dira: elikadura burujabetza, energia-eredua, ekonomia-aren birlokalizazioa eta zaintza. Maila politiko-estrategikotik hasi, eta eragin politikoko eta bizimoduak eraldatzeko aukera indibidual eta kolektiboak ere jasotzen dira.

Gida honetan egindako lanaren zentzu eraldatzailea berreskuratu nahi dugu, eta horretarako, dokumentu hori osatu nahi dugu, bi zentzututan:

- Lau dimentsioek zeharkatzen dituzten eraldaketa-ardatzak identifikatuta: Zer dute komunean energia-eredua, elikadura-burujabetza, ekonomia eta zaintzaren inguruan proposatutako aldaketek? Esan dezakegu hori guztia 5 trantsizio-ardatzek zeharkatzen dutela: jasangarritasun ekologikoa, ekonomia-aren birlokalizazioa, denon arteko erantzunkidetasuna, lanen berrantolaketa eta demokratizazioa. Oost ardatz horiek, lau dimentsioetan planteatzen diren elementu komunak jasotzeaz gain, iparrorratz funtzioa ere betetzen dute: proposatutako aldaketak lortzeko nondik jo behar dugun adierazten digute..
- Proposamenak eta aldarrikapenak erakunde-mailara ekarrita, eta zehatzago, udal-arlo-ra: Zer egin dezakete eraldaketa sozialarekin konpromisoa daukaten udalek? Nondik hasi

lanean krisi ekologikoari aurre egiteko, eta biztanle gehienek egungo “bizimodu txarrak” elkarbizitza partekatu on bihurtzeko? Zentzun horretan, zazpi neurri eraldatzaile proposatzen dira, bi funtsezko tresnatan oinarrituak.

Azken urteotan gida andana agertu dira, administrazio publikoetan gauzatzeko hainbat jardunbide proposatzen dituztenak. Gida horietako batzuk sektorialak dira, eta beste batzuk integralagoak; batzuek erakundeak dituzte ardatz, eta beste batzuek erakundeak bestelako ekintza-eremu batzuekin lotzen dituzte; beste askok tokikotasuna dute ardatz. Horiek guztiek lagundu egiten digute nahi ditugun eraldaketak praktikara eramaten. Argitalpen kopuru horretaz guztiaz jabetuta, uste dugu gida honek ekarpen bikoitza egin dezakeela. Bate-tik, proposatutako neurriak azaldu ahala, argitaratutako beste gida batzuen erreferentziak txertatu ditugu, eta beraz, zehaztu egiten da noiz diren baliagarriak gida horiek urrats edo modu zehatz bat pentsatzeko. Bestetik, proposamenen oinarrian dagoen ikuspegi integrala baliagarria izatea espero dugu, ez baita mugatzen jarduera-eremu jakin batera (esaterako, lehen sektorearen lanketa sektorial bat, edo genero-berdintasunaren ikuspegi zehatz bat). Neurriak multzo sinergiko gisa pentsatuta daude; horiek batera martxan jartzeak eraldaketa sozialaren makineria aktibatuko luke lurralde bakoitzean.

2. Zer aldatu nahi dugun, eta norantz: Trantsizioaren ardatzak

Trantsizio ekosozialeko unean gaude, eraldaketa prozesu bikoitz batek bat egiten duen unean. Alde batetik, gure hiri, herri eta udalen oinarri materiala, ekosistema, aldatzen ari da. Orain daukagun ekosistema kolapsatu egin da, eta horrek esan nahi du gure sistema sozioekonomikoen oinarri materiala murriztu egin beharko dela, bai ala bai. Esku hartzeko daukagun tartea ez da hori sailhestea, baizik eta justizia sozialeko testuinguruan gertatzen dela ziurtatzea, adibidez, pobrezia energetikoa areagotzea sailhestuz. Bestalde, egitura ekonomikoak hautsi dira: orokortu egin da bizitzaren prekarietatea, hau da, gogobetegarriak diren bizitzak bizitzeko beharrezko baliabideak eskuratzeko etengabeko segurtasun falta. Prekarietate horrek, askotan, bazterkeria dakar, eta modu oso desorekatuan banatzen da, haustura sozioekonomikoak sakontzen ari direlako. Dimentsio anitzeko krisia bizi dugu, sozioekonomikoa eta politikoa. Bestela esanda, ezagutzen dugun mundua aldatzen ari da. Galdera honakoa da: nola baliatu ezinbesteko aldaketa garai hau, aldaketa horrek etorkizun itxaropentsuago baterantz eraman gaitzan, non bizitza jasangarriak posible izango diren, eta bizitza horiek bermatzea erantzukizun komuna izateaz gain sistema sozioekonomiko berriaren ardatza izango den?

Hausnarketa trantsizioaren ideiatik abiatzeak erreforma edo hausturatik harago pentsatzera behartzen gaitu: egungo egitura sozioekonomiko eta politikoen erabilera oro da aldaketaren parte, ezinbestean. Horregatik, beharrezkoa da aldi berean lan egitea premiak asetzeko eta nahi den aldaketa sistemikoen oinarriak ezartzeko. Bi helburu horietatik abiatuta, bost ardatz definitu ditzakegu bizimodu jasangarrietarantz jotzeko, desazkunde ekofeministaren bidetik.

TRANTSIZIOAREN ARDATZAK	
Jasangarritasun ekologikoa	3Rak deritzonak; tokiko bioaniztasuna zaintzea; ekoizpen ekologikoa; uraren kultura berria; energia-iturriak, banaketa-sareak eta erabilerak aldatzea.
Birlokalizazioa	Zirkuitu sozioekonomikoen eskala murriztea, laburtzea eta sinplifikatzea; subjektuen, espazioen eta lurraldeen eta zirkuitu sozioekonomikoen kate-mailen arteko konexioa.
Denon arteko erantzunkidetasuna	Bizitza konpontzeko moduen kolektibizazioa; erantzunkidetasun integralaren eraikuntza (eragile guztiak, pertsona guztiak); ondasun komunaren defentsa; lankidetzaren ardatz egiturazailerik gisa ezartzea.
Lanak berrantolatzea	Lan ez-ordaindua balioestea; lan-baldintza duinak; bizitzarekin bateragarriak diren denborak (lan ordainduaren denbora murriztea barne); lanaren sexu- eta arraza-banaketa amaitzea; lanei zentzu soziala ematea.
Demokratizazioa	Eskubideen unibertsaltasuna; boterearen eta baliabideen birbanaketa; aniztasunarekiko harrera (dela sexuala, generokoa, arrazakoa, funtzionala); erabakiak hartzeko prozesuen demokratizazioa; bizitza kolektiboan modu errealean eta informatuan parte hartzea.

2.1. Jasangarritasun ekologikoa


Klima-aldaketa al da udalerritan daukagun arazoa? Bai eta ez. Neurri zorrotzak berehalako hartu ezean, klima-aldaketak eragin oso larriak izango ditu gure lurraldean, epe laburrean. Euskadin espero diren inpaktuen artean, honakoak daude: temperaturak igotzea (itsasoarena barne), euriteak murriztea, itsas maila igotzea eta uholde-eremuak areagotzea¹. Are gehiago, klima-aldaketa eragina izaten ari da dagoeneko; hala adierazi du [Ihobe-k \(2019c\)](#) 2011-2040, 2041-2070 eta 2071-2100 garaien proiektzioak aztertu ondoren: Orokorrean, proiektzioek, 1971-2016 garaietan neurri batean antzeman izan diren joerak islatzen dituzte, baina nabarmenago". Antzeko zerbait ikusten da Nafarroan. Bertan, KLINAREN (2017) arabera, honako ondorioak aurreikusten dituzte: murrizketa hidrikoa (kalitatean eta kantitatean), nekazaritza- eta abeltzaintza-sektorearen zurgarritasun handia, bero-uhartearen efektua hirietan. Klima-aldaketa prozesu globala da, eta ezin da modu lokalean konpondu. Horregatik dira garrantzitsuak mugaz gaindiko espazioak, hala nola [Uhinak](#), Klima-Aldaketa eta Itsasertzari buruzko Mugaz gaindiko Kongresua. Hala ere, tokikotasunetik eragiteko tarte handia dago (Ihobe-k, 2019b, hiru estrategia identifikatzen ditu: arintzea, egokitzea eta erresilientzia), eta ezinbestekoa da lurralde bakoitzak bere gain hartzea borrokan duen erantzukizuna.

Klima-aldaketa ezin da fenomeno isolatu gisa ulertu, baizik eta kolapso ekologikoaren

1 Iturria: [hau](#), [Hemen](#) kontsulta daitezke hainbat udalerritan aurreikusitako inpaktuak.

testuinguruan, non klima-aldaketa bera, bioaniztasunaren galera eta material- eta energia-iturri ugariaren erauzketaren gailurra nahasten diren. Kolapso egoera horrek, nahitaez, gure sistema sozioekonomikoen oinarri materialak murriztera garamatza. Material eta energia gutxiagorekin bizitzen eta hondakin gutxiago sortzen ikasi beharko dugu. Justizia sozialaren oinarrizko printzipioari jarraiki, murrizketa hori birbanatze-terminoetan eman behar da, azarna ekologikoaren egungo banaketa desorekatua arintzeko. Horregatik guztiagatik, gure udalerrien ingurumen-jasangarritasunean eta oreka ekologikoan aurrera egitea funtsezko ardatza da bidezko trantsizio ekosozialera bidean. Ardatz honetan, eragiteko bide hauek sar ditzakegu:

- 3Ren estrategiatik ekonomia zirkularrera aurrera egitea: mende erdi baino gehiagoko historia du 3Ren printzipioak (materia eta energiaren erabilera eta hondakinen sorrera murriztea, erabiltzen ari garena berrerabiltzea eta jada erabili ezin dena birziklatzea). Printzipio horiei beste batzuk gehitu zaizkie (birdiseinatu, konpondu, berritu, berreskuratuta), eta horietaz harago, ekonomia zirkularraren nozioa ekarri du, “paradigma ekonomiko berri baten moduan, non produktuak etengabe berrerabiltzen eta birziklatzen diren” ([Ekologistak Martxan, 2014](#)).



- Tokiko bioaniztasuna babestea: Aniztasun biologikoa ekosistemen oinarria bera da, eta batzuetan *bizi-aseguru* gisa definitu izan da. Espezie bat desagertzen denean oreka aldatzen da, eta arriskuan jartzen da beste guztien funtzionamendua, [EAEko 2020ko Biodibertsitate Estrategia](#) delakoan aitortzen den moduan, esaterako.

- Uraren kultura berria: Nueva Cultura del Agua fundazioak bere [gidan](#) proposatzen duenaren arabera, kultura horren funtsa da, eguzkiaren argiarekin eta beroarekin batera, ura ere planeta bizirik mantentzen duten hiru elementuetako bat dela onartzea. Hortik abiatuta proposatzen du ura giza sistementzako baliabide gisa erabiltzea eta ondasun komun gisa ulertzea, kudeaketa jasangarria sustatuz eta uraren eskariaren arabera (erabilera) jardunez, eta ez eskaintzaren arabera (eskura dagoen ur kopurua)².
- Elikadura-eredu agroekologikoa: agroekologiak elikadura-sistemak berreraikitzea eskatzen du, oinarritzko hiru noziotik abiatuta (jasangarritasun ekologikoa, sozioekonomikoa eta soziopolitikoa) eta hortik, gure lurraldea eta bertan garatzen diren harremanak berrorekatzea.
- Energia-burujabetzarako trantsizioa: komunitate batek kontsumitzen duen energiaren ekoizpena kudeatzeko duen gaitasuna da, neurritzko kontsumo baten baitan, betiere. Ekoizpen-eredu jasangarria eta demokratikoa da; pertsona edo enpresa gutxiren esku dauden energia-sorkuntza eredu zentralizatuekiko kontrajarria, zeintzuek erregai fosil garestiak, oso kutsagarriak eta herritarrentzat eskuragaitzak direnak erabiltzen dituzten gehienbat.

Aipatutako bide guztiak ezinbestekoak izan arren (beste batzuekin batera), azken bietan jarriko dugu arreta, abian dauden eta ikasteko balio dezaketen ekimenen aniztasuna eta aberastasuna direla eta. Azkenengoari 1. neurriaren bidez helduko diogu, Energia positiboa duten lurraldeak izenekoak, eta eredu agroekologikoa neurri guztien oinarria izango da.

2.2. Ekonomiaren birlokalizazioa

Ekonomia birlokalizatzeak ehun sozioekonomikoa eraikitzea esan nahi du, ardatz gisa kokatuta lurralde bakoitzeko biztanleen bizitzen jasangarritasun-premiak. Horrek esan nahi du baliabideak eta balioa ez direla kanpora bidaliko; tokiko beharrak, ahal den neurrian, tokiko gaitasunak mobilizatuz ase ahal izango dira; eta prozesu sozioekonomikoak bizirik dagoen lurralde batean sustraituko dira. Ekonomia birlokalizatzeo funtsezko bi aldaketa behar dira:

- Zirkuitu sozioekonomikoen eskala murriztea, laburtuta eta sinplifikatuta. Gero eta globalagoa den ekonomiaren aurrean, finantzaketa-, ekoizpen- eta banaketa-prozesuak horien onuradun izan behar duten pertsonen hurbiltzea da helburua. Eskalako ekonomiei galga jartzea esan nahi du, txertatzen diren herritik deskonektatzen ez direla ziurtatzeko. Horrek esan nahi du prozesu ez hain konplexu eta hiper-espezializatuen alde egitea (adibidez, industria handitik baino, manufakturatik hurbilago dagoen logikara itzultzea) eta egiten ditugun lanak gure ingurunekeo beharrekin lotzea.
- Birlokalizazioak prozesu sozioekonomikoen kate-mailak berriro lotzea eskatzen du ere (finantzaketa, ekoizpena, banaketa, hornikuntza). Ekonomia zirkularrak eraikitzeaz hitz

2 [Cida honetan](#) EHko praktika onak jaso dituzte: Vitoria-Gasteizko Ura Aurrezteko Plan Integrala, Noingo lorezaintza ekologikoa eta Arazuriko araztegia.

egin dezakegu, ez soilik ingurumenari dagokionez, baita gizakiei dagokienez ere: edozein herritako ekonomia bertako bizitzaz elikatzen da, eta aldi berean, tokiko bizitza erreproduzitu behar du. Kate-mailen arteko konexioak fase horietako subjektu protagonisten eta erakundeen arteko konexioa eskatzen du. Horietako bakoitzaren helburuak eta horiek lortzeko moduak gurutzatu egin behar ditu bizitzak sostengatzeko zeharkako helburuak.

Ekonomia birlokalizatzea funtsezkoa da trantsizioaren beste lau ardatzetan aurrera egiteko:

- Jasangarritasun ekologikoa: Zirkuituak laburtuta, izugarri murrizten da prozesuek ingurumenean duten inpaktua. Hurbil ekoiztutako elikagaiak kontsumitzeari esker, garraio prozesuan petrolio asko aurrezten da.
- Guztiona eraikitzea: zirkuituak laburtuta, gure ekintzen eta haien ondorioen arteko distantzia ere laburtzen dugu. Badakigu kontsumitzen duguna zein baldintzatan ekoizten den, eta horren erantzule bihurtzen gara; edo martxan jartzen ditugun lanen giza- eta ingurumen-inpaktua ikusten dugu. Interdependenziarekiko kontzientzia hori oinarritzkoa da erantzunkidetasuna eraiki ahal izateko.
- Demokratizazioa: hurbiltasunean errazagoa da prozesu benetan parte-hartzaile eta horizontalak abiatzea, pertsonen erabakitze gaitasun burujabea eta arduratsua sustatzeko.
- Lanak berrantolatzea: batetik, ehun sozioekonomikoa osatzen duten pertsonen zuzeneko elkarrekintza, eta bestetik, harremanak zailtzen dituzten eragile bitartekariak ezabatzea. Horrek guztiak langileen negoziazio-boterea handitzeko aukera ematen du, eta bizitza kolektiboari egiten dioten ekarpenaren arabera lanak errebalorizatzeko beharrezko prozesua erraztu dezake.

Ehun sozioekonomiko propio eta bizietatik, lurraldearen inguruan egituratuak, herriak elkarren artean erlazionatzen dira. Ez da autarkiaren alde egitea, baizik eta burujabetza sozioekonomikoa saretzearen alde egitea baizik. Hemen 2. neurriaren bidez helduko diogu: Merkaturatze Zirkuitu Laburrak.

2.3. Denon arteko erantzunkidetasuna

Bizitza jasangarrietarantz joateko, arreta jarri behar dugu pertsonen ongizate fisiko eta emozionala egunero berreraikitze prozesuan. Bizitza ez da kasualitatez edo sorginkeriaz gertatzen, baizik eta egunez egun zaintzen eta birsortzen delako. Zaintza esaten diogu, definizioz, amaierarik ez duen eta bizi-ziklo osoan guztiok behar dugun prozesuari. Baina pertsona edo eragile sozial guztiak ez gara berdin inplikatzeko zaintzari dagokionez. Eta ondorioz, desberdintasun handia dago denboraren, lanaren eta baliabideen banaketan³. Urteak pasa ahala, hainbat paradigma politiko:

³ [Euskadin](#) egindako denbora-aurrekontuen azken inkesta 2013koa da (2018an egindakoari buruz, oraingoz, prentsa ohar bat baino ez dago eskuragarri). Bai [Espainiako Estatuan](#) zein [Frantzian](#), azkenengoa 2009-2010ekoa da.

- Bizitza pertsonala, lana eta familia bateragarri egitea: lan ordainduan, zaintza lan ez-ordainduan eta aisialdian/bizitza pertsonalean emandako denboraren arteko orekan jarri du arreta. Etxeetako antolaketan, maila txikian, aldaketak sustatzean ardatzen da, eta baita lan-merkatuan zein zaintza lanetan egotean emakumeek bizi dituzten tentsioak ezabatzean eta norberaren bizitzarako denbora faltarekin bukatzean ere.
- Erantzunkidetasuna: aurrekoan ez bezala, gizonak zaintzan inplikatzeko azpimarratzen da. Etxeetatik harago, erakunde publikoek mendekotasun-egoera duten pertsonak eta haurrak zaintzeko erantzukizuna hartzearen alde egiten du.

Erantzunkidetasunaren paradigmak aurreko hariak jasotzen ditu, eta zabaldu egiten ditu:

- Zaintzari buruz aritzean, ez gara ari soilik mendekotasun-egoeran dauden pertsonen eta adingabeen buruz, baizik eta pertsona ororen eguneroko bizitzaz. Gizartea elkarrekiko mendekotasun-harreman gisa ulertzen da; inor ez da buruaskia, eta ez da inoiz izango. Hortaz, galderak honakoak dira: Guztiok parte hartzen dugu bizitzaren zaintzan? Hori al da antolaketa sozioekonomikoaren ardatza? Zerk definitzen du lanen banaketa eta balorazioa? Galdera hauetatik abiatuta, arazoak ikusten dira eta aldaketak proposatzen dira.
- Zaintzea gutxiesten den zeregina dela ikusten da, eta beraz, generoa, klase soziala, arrazializazioa, migrazio-estatusa eta abarregatik aukera gutxiago dauzkatenek gauzatzen dute. Pertsona guztiek beren burua eta taldea zaintzeko ardura hartzea da apustua. Horrek aldaketak eskatzen ditu lanak balioesteari eta banatzeari dagokionez. Halaber, zaintzaren gizarte-antolakuntzaren inguruko gatazkak ondo ezagutzea ere eskatzen du, eta horiei aurre egiteko prest egotea. Lortu beharreko ondasun komun batean pentsatu arren, horrek ez du esan nahi gatazkaren dimentsioa ukatu behar denik.
- Agerikoa da ehun sozioekonomikoaren ardatza ez dela bizitza kolektiboa zaintzea, baizik eta etekin monetario partikularra, eta pribatizatzearen joera nagusia dagoela. Horren ondorioz, bizitza gero eta baldintza zailagoetan zaintzeko lehenengo eta azkenengo erantzukizuna etxeetan hartzen da. Horren aurrean, proposamena da ehun sozioekonomikoan aldaketak txertatzea, horrela irabazi-asmoa ez dadin izan ardatz egituratzailea, bizitza sostengatzeko erantzukizuna etxeetatik atera dadin eta arlo publiko-komunaren eremuan kokatu dadin.

Ardatz horren testuinguruan, erantzunkidetasunaren aldeko (des)adostasunen 3. neurria proposatzen da.

2.4. Lanak berrantolatatu

Lanen egungo antolaketa ez da ez jasagarria ezta bidezkoa ere, eta ez ditu asetzen bizitzaren eta lurraldearen beharrak. Horregatik eraldaketa sakona egin behar da, eta gutxienez, honako gai hauek aztertu behar dira

Aldaketak egin behar dira aldi berean, lan ordainduaren eta ez-ordainduaren antolaketan.

Bi kasuetan, aldaketak plano bikoitzean egin behar dira. Alde batetik, egungo lanaren banaketa bidegabean eraginez; izan ere, pribilegioa/zapalkuntza hainbat modutan sortzen da (generoa, klase soziala, estatus migratzailea, etab.) eta betikotu egiten ditu. Bestetik, horiei balioa eman, bizitza sostengatzeko egiten duten ekarpenaren arabera balio sozial eta ekonomiko handiagoa edo txikiagoa eman, eta sakoneko soldata-desparekotasunak ezabatuta. Aldaketa horrek berekin dakar, besteak beste: ordaindu gabeko lanari balioa ematea; ordaindutako lan guztietan lan-baldintza duinak bermatzea; lan ordainduaren eta ez-ordainduaren sexu- eta arraza-banaketa murriztea.

Gaur egun, zaintza lan ez-ordainduaren funtzionamendua, neurri handi batean, lan ordainduaren antolaketa baldintzatzen du. Eta hori, halaber, merkatuaren errentagarritasun beharraren arabekoa da. Horrek guztiak esan nahi du lanaren mundua ez dagoela bizitza zaintzeko premiaren inguruan egituratuta, eta testuinguru zail horretan erantzukizuna hartu behar dutenek bizi-tentsio handiak izaten dituztela. Horrek argi frogatzen du lan-mundua aldatzeak, aldi berean, aldaketa sakona dakarrela ehun sozioekonomikoaren ardatz egituratzailean. Ardatz egituratzailea, berez, egungo errentagarritasun monetariotik bizitzaren jasangarritasunera mugitu behar da. Horretarako, lanaren zentzu soziala berreskuratu behar da, hau da, ziurtatu behar da lanek ingurunekeo beharrei erantzuten dietela eta txertatzen diren komunitatearen bizi-kalitatea hobetzen dutela. Lana eta, oro har, denborak antolatu behar dira, bizitzako beharrekin bateragarriak eginez.

Lanaren antolaketa eraldatzeak ehun sozioekonomikoaren oinarria eraldatzea eskatzen du, hori baita aberastasun kolektiboaren iturria.

- Birlokalizazioa: lanaren berrantolaketaren funtsezko zatia lurraldeari eta bertako herritarren beharrei lotzea da.
- Denon arteko erantzunkidetasuna: erantzunkidetasuna eraikitzeak berekin dakar oro har lanak, eta bereziki zaintzak, zuzen banatzeko bidean aurrera egitea.
- Demokratizazioa: lana berrantolatzeak esan nahi du lana bizitza sozioekonomikoan bete-betean parte hartzeko modu bat izatea; eta lan esparruak hierarkikoak ez diren eta us-tiapenean oinarrituta ez dauden entitate sozioekonomikoak izatea.
- Jasangarritasun ekologikoa: lanak berrantolatzeko, bermatu behar da lan-prozesuak ekosistemarekin bat egiten duela, eta ez dela ekosistemaren harraparia.

Bizitza erdigunean jarriko duen eredurantz jotzearen ondorioz, enplegu batzuk desagertu, beste batzuk sustatu eta beste batzuk gauzatzeko baldintzak aldatuko dira. Politika publikoetatik ekonomia sozial eraldatzailea bultzatu daiteke, egiten ditugun lanetan aldaketak sustatuz goikoa kontuan hartuta. Hori dela eta, ardatz hau ekonomia sozial, solidario eta eraldatzailearen aldeko apustuaren 4. neurrian jasotzen da.

2.5. Demokratizazioa

Uler dezakegu, gaur egungo desparekotasun sakon eta konplexuek elkarlotutako hiru alderdi zeharkatzen dituztela:

- Banaketari lotutako injustizia: gure ustez esanguratsuak diren bizitzak sostengatzeko baliabideen banaketa desorekatua. Bidegabekeria horiek ez dira ezerezetik sortzen; aitzitik, munduan egoteko modu ezberdinei, identitate ezberdinei, ematen zaien balio desorekatuarekin daude lotuta.
- Aitortzari lotutako injustizia: munduan egoteko modu ezberdinek duten zilegitasun-mailari lotuta dago, generoaren, sexu- eta genero-identitatearen, aniztasun funtzionalaren, etnizitatearen eta abarren arabera. Banaketa-bidegabekeriek materialtasuna ematen diete sinbolikoagoak diren irudikapen-bidegabekeria hauei.
- Errepresentazioari lotutako injustizia: bizitza kolektiboaren inguruan erabakitzeko gaitasuna eta mundu sozial eta politikokoan parte hartzeko gaitasuna asko aldatzen da eskura ditugun baliabideen arabera, eta eskubide osoko subjektu gisa dugun aitortza-mailaren arabera.

Bidegabekeria horiek pribilegio/zapalkuntzaren hainbat ardatzen korapiloetan zehazten dira: generoa, klase soziala, arrazalazioa, genero eta sexu identitatea, aniztasun funtzionala, migrazio estatusa, etab.

Demokratizazioaz ari garenean, hiru alderdietan modu konbinatuan eragiteaz ari gara. Erabakiak hartzeko prozesuen demokratizazio erradikalari esker, pertsona guztiak subjektu politiko eta eskubide-subjektu gisa aitortzen dira. Ezinbesteko baldintza da hori banaketaren eta aitortzaren justizian aurrera egiteko, eta aldi berean, posible izango da soilik baliabideak birbanatzen badira eta munduan egoteko modu guztiak berdin balioesten badira. Boterea eta baliabideak birbanatzea da helburua (denborak, espazioak, bizibideak, etxebizitza; osasuna, hezkuntza eta lana eskuratzea...).

Eskubideei dagokienez, horrek guztiak eskubideen unibertsaltasunerantz aurrera egitea dakar, ongizate-sistema duala ezartzeko joerarekin hautsiz: batetik, kontribuzio-eskubideekin (lan ez-ordainduak ez dituzte ekarpentzat hartzen), biztanleriaren zati gero eta txikiagora murriztuz; eta bestetik, gero eta zabalagoak diren eta askoz kalitate txarragoak diren laguntza-eskubideekin. Unibertsaltasun hori osatzeko aniztasuna errespetatu behar da. Nahiz eta arlo publikoak gaitasun potentzial unibertsalizatzailea duen, egia da maiz, gaitasun hori, *taila bakarreko* tresnekin lortzen dela; tresna horiek munduan *normaltasunez* egoteko moduetan oinarrituta diseinatu dira, eta ondorioz, ez dute aniztasuna aitortzen.

Eskubideen unibertsaltasuna; boterearen eta baliabideen birbanaketa; aniztasunarekiko harrera (dela sexuala, generokoa, arrazakoa, funtzionala); erabakiak hartzeko prozesuen demokratizazioa; bizitza kolektiboan modu errealean eta informatuan parte hartzea.

Gida honetan, demokratizazioaren bi dimentsio indartzearen alde egiten dugu:

- Genero-berdintasunera bidean aurrera egitea, eta desparekotasuna betikotzen duten mekanismo patriarkalak desmuntatzea (5. neurriaren oinarriak dira ahalduntze-eskolak eta emakumeen etxeak).
- Erakunde-politikaren demokratizazioa: neurri guztien ezarpena gidatu behar duen zutabe gisa heltzen zaio parte-hartze errealean.

2.6. Trantsizioaren ardatzak elkar gurutzatzen

Trantsizioko bost ardatzak lotuta daude. Forma bereziak har ditzakete zeharkako apustu zehatzetan, haien arteko sinergia espezifikoak proposatzen dituztelako. Sistema sozioekonomikoaren eredu-proposamen batzuk integralak dira, eta aipatutako bost ardatzak nola lurre-ratu pentsa dezakegu.



Horietako bat, agroekologiaren aldekoa da. Landa-eremu biziaren eta duinaren alde egitea esan nahi du horrek; ingurunea zainduko duena, gazteak geratzea bermatuko duena eta biztanle berriei hara jotzeko gogoia sortuko diena. Horretaz harago, landa-eremuaren eta hirien arteko lotura berreraikitzea eskatzen du; horretarako, hiriek zentraltasuna galdu behar dute, bi espazioen arteko lotura horizontala ezarrita eta nekazaritza-ekonomiaren alde eginez. Horrela, agroekologia ez datza soilik lehen sektorea birmoldatzean; industria-sektoreari eta zerbitzuei ere aukera berriak ematen dizkie. Eta horretaz harago, gure lurraldea eta bertako harremanak birpentsatzea dakar.

Eredu agroekologiko baterantz jotzeak eskatzen dituen eraldaketen artean, honakoak daude:

- Ondasun komunen defentsa; bereziki lurra, ura eta bioaniztasuna.

- Elikagaien ekoizpen-eredu autonomia eta ekologikoa sustatzea; barne-kontsumora bideratua; tresnen, azpiegituren eta jakintzaren kolektibizazioan oinarritua (horri esker, ekoizpen txikiak eta artisauek ordaindu ezin dituzten kostu ekonomikoak sozializatu daitezke).
- Hurbileko zirkuituetan oinarritutako merkaturatze-eredua sustatzea, baita hornikuntza-eredu arduratsu berria ere.

[Bizilur eta Etxalderen](#) gidan azaltzen den moduan, agroekologia “diziplina anitzeko ikuspuntua da”, eta jasangarritasunaren hiru alderdiri lotuta dago.

- Jasangarritasun ekologikoaren alde egin da. Horrek esan nahi du ezagutza tradizionalak babestu eta berreskuratu behar direla; nekazaritza eta abeltzaintzako ekoizpen-sistema integratuak eta anitzak jarri behar direla martxan, ekoizpen estentsiboan eta teknika ekologikoen erabileran oinarrituta; ondasun naturalak modu jasangarrian erabili behar direla; energia-efizientzia eta -neurritasuna, eta abar.
- Jasangarritasun sozioekonomikoaren alde egiteak erreferentzia egiten die lanak berrantolatzeke eta birlokalizatzeko ardatzei. *Nekazaritzako elikagaien tokiko sistemak* eta bidezko banaketa-sistemak sustatzea dakar, tokikoak, eta ekoizleak eta kontsumitzaileak lotzen dituztenak.
- Azkenik, jasangarritasun soziopolitikoaren alde egiteak, azpimarratu egiten beharra dagoela nekazaritza- eta industria-ereduen harreman desorekatuak eraldatzeko (genero, adin, klase, iparra-hegoa ardatzen arabera), eta baita alternatiba horiek kolektiboki eraitzeko ere. Horrek guztiak, demokratizazioaren eta denon arteko erantzukidetasunaren ardatzetara garamatza.

Proposamen horiek guztiak lurraldean errotzen dira. Agroekologiak lurzorua erabileraren birpentsatzea dakar, gure lehentasun sozioekonomikoen arabera. Horrela, sektoreen arteko harremana birpentsatu behar da, lurralde gehiago bideratuta nekazaritza-erabilerara, eta gutxiago industriara edo azpiegitura handietara. Halaber, hiriko lurzorua bera birplanifikatu behar da urbanizazioaren gorakada eta eraikuntza espekulatiboa saihesteko, horrek ez baitu uzten etxebizitza-parkea berreraikitzea eta egokitzea, ezta lurzorua erabiltzea hirigintzakoak ez diren gauzetarako. Hori guztia politika publikoetan islatu daiteke; esaterako, lurralde-antolamenduko gidalerroetan.

Hemen aipatutako trantsizio-ardatzetan irakur dezakegun beste proposamen integral bat feminismoa da. Feminismoaren ardatz egituratzailea genero *berdintasunaren* aldeko apustua da. Berdintasun hori honela ulertzen da:

- Berdintasun formala (sexuan oinarritzen diren zuzeneko eta zeharkako diskriminazio-moduak ezabatu, oraindik ere gertatzen direnak) eta erreala.
- Ekitate: berdintasuna lortzeko mekanismo zuzentzaileak ezartzea (beharrezkoa bada, tratamendu diferentziala; adibidez, ekintza positiboa deritzona).

- Eraitza berdintasuna, hau da, bizi-kalitateari dagokionez lortutako berdintasuna, aukera-berdintasunetik harago doana.
- Aniztasunean berdintasuna: unibertsaltasunera bidean, bizitza bakoitzak (indibiduala edo kolektiboa) sexu-orientazioagatik, genero-identitateagatik, dibertsitate funtzionalagatik, etab, daukan berezitasuna aitortzeko eta adierazteko espazioa zabaltzen da.
- Berdintasuna, desparekotasun-egiturak desmuntatzetik abiatuta: kontua ez da pertsona guztiak espazio *pribilegiatu*etan kokatzea, baizik eta bazterkerian oinarritutako egitura sozioekonomikoa berreraikitzea.

Zaintza bizitzaren zutabe gisa aitortzea planteatzen du feminismoak; izan ere, bizitza ekodependentea eta interdependentea da. Hemendik abiatuta, feminismoak gure sistema sozioekonomikoaren ardatz egituratzailea eraldatu nahi du, gizaki zein animalien bizitzaren jasangarritasuna erdigunean jarrita, eta zaintza erantzukizun kolektibo bihurtuta. Zentzu horretan, feminismoak honakoen hauen alde egiten du:

- Jasangarritasun ekologikoa: lurra zaintzen gaituela eta zaindu behar dugula onartzea da, eta lurraldearen zaintzarekin lotutako emakumeen jakintza historikoak berreskuratzea (horien artean, emakume baserritarrenak).
- Birlokalizazioa: eguneroko bizitza lurraldetik bertatik eta lurraldean bertan konpontzearen aldeko apustua da. Zaintzak ezin dira konpondu emakume migratzaileen lan prekarioak eusten dituen kate globaletan oinarrituta.
- Denon arteko erantzunkidetasuna: gaur egun autoaskitasunaren nahia da nagusi, eta horrek zaintza lanik gabe egotea eskatzen digu, lan-merkatuan eta eremu publikoan arrakastaz jarduteko. Berdintasunerantz aurrera egiteko autoaskitasun-eredua hautsi behar da, guztiok zaitza lanen erantzunkide eginez.
- Lanak berrantolatzea: lanaren banaketa sexuala eta arrazializatua ezabatuz, lan ordainduak eta ez-ordainduak banatuz, eta lanak bizitzaren jasangarritasunari egiten dioten ekarpenaren arabera baloratuz.
- Demokratizazioa: pribilegio/zapalkuntzaren ardatz nagusi bat generoa da. Horregatik, genero-berdintasunera bidean aurrera egitea funtsezkoa da edozein prozesu demokratizatzailetan.

Bi proposamen horiek, agroekologia eta feminismoa, presente daude gida honetan guztian; maiz, ikuspegi global gisa ageri dira, eta batzuetan, ekintza zehatz bihurtzen dira.

3. Udalerrietatik

3.1. Eskala estrategikoa

Bizitza jasangarrietara jotzeko trantsizioari ekarpena egin nahi dion gida hau, zergatik bideratu tokikotasunera? Gure ustez, udalerriak eragiteko eskala estrategikoak dira, hainbat arrazoiengatik:

- Autonomiagatik: nahiz eta udalerrien eragiteko gaitasuna murrizta izan daitekeen (aurrekontuak, eskumenak, tamaina eta bestelako arrazoiengatik), aldi berean, herritarren behar zehatzei erantzuten duten lehen erakundeak direnez, autonomia-tarte zabala ere badute. Tokian tokian, egoera zehatzak konpontzeko modu sortzaile eta berritzaileenak entseatu daitezke.
- Hurbiltasunagatik: hausnartuak izan diren errealitateetatik sortzen diren proiektuak dira potentzialtasun handiena dutenak. Izan ere, bertatik bertara ezagutzen dituzte lurraldearen beharrak eta bertan aktibatu daitezkeen baliabideak.
- Proposatutako bost trantsizio-ardatzak sistema sozioekonomiko txikiagoetarantz doazelako, lurrari lotuagoak daudenak eta eskala txikiagokoak. Inguru hurbilean hobeto sortu daiteke bizitza komunarekiko erantzunkidetasunaren sentimendua, eta horrela, lana zentzu sozialarekin lotu daiteke. Eskala txikian, errazagoa da zuzeneko parte-hartze prozesuak garatzea eta eguneroko bizitza demokratizatzea.

Horregatik guztiagatik, hemen aurkeztutako trantsizio-ardatzek politika publiko guztiak zeharkatu beharko lituzketen arren, tokikotasunean zentratzea erabaki dugu. Dena den, udalerriek ere hainbat udalerriren arteko saretze bidezko lana egin behar dute. Zentzu horretan, gida hau zuzenduta dago ere udalerrri anitzeko egiturei, hala nola mankomunitateei, kuadrillei eta eskualdeei.

3.2. Jarduera-eremuak

Proposatutako neurriak erakundeen jarduera-eremuetara egokitu behar dira. Zenbait eremutan, udalek eragiteko gaitasun handiagoa daukate. Beste batzuetan, berriz, gaitasun gutxiago dute, eskumenak beste administrazio-maila batzuenak direlako. Esate baterako, Euskadin, haur-eskolak (eta, beraz, 0-3 urte bitarteko zaintza) eta etxez etxeko laguntza-zerbitzua udalaren esku daude, eta adinekoen egoitzak, berriz, foru-aldundien eremuan daude gehienbat.

Eragiteko gaitasun gehiago

Eragiteko gaitasun gutxiago

- **Hirigintza** (eraikuntza baimenak, lurzorua kalifikazioa eta lagapena...)
- **Garraioa**
- **0-3**
- **Etxez etxeko laguntza**
- **Tokiko ogasuna** (udal-zer-gak, prezio publikoak)
- **Ehun ekonomikoa sustatu**
- **Asoziazionismoa**

- **Gizarte politika** (komunitarioa, integrazioa...)
- **Gazteria**
- **Migrazioa**
- **Kultura**
- **Kooperazioa**

- **Osasuna**
- **Hezkuntza**
- **Zerga sistema**
- **Industria**
- **Legegintza** (ordenantzak salbu)
- **Azpiegiturak** (errepideak, tren...)
- **Basoak**
- **Mendekotasun egoeran dauden pertsonentzako arreta**

Dokumentu honetan kontuan hartu dugu zein eremutan dagoen eragiteko gaitasun handiena, proposatutako neurriak hautatzeko. Hala ere, aldi berean, udala da herritarrengandik hurbilen dagoen erakundea. Hortaz, eguneroko arazoak lehendabizi detektatzen dituen erakundea da, eta arazo horiek konpontzeko interpelazio zuzenena jasotzen du, *bere eskumen formala izan ala ez*. Zentzu horretan, maiz, udalak aitzindariak izan dira zerbitzuen garapenean; horietako batzuk, gerora, erantzukizun publiko gisa ezarri dira, eta beste erakunde-maila baten ardura izan zitezkeen. Hala gertatu da, esaterako, indarkeria matxistaren biktimak diren emakumeei laguntzeko zerbitzuekin, eta migratzaileen integrazioarako zerbitzuekin. Hori guztia dela eta, dokumentu honetan eskumenen banaketa ez da modu zurrunean ulertzen; hau da, neurri bat iradokitzean, ez dugu aipatuko dagokion araudiaren artikulua.

Konfiantza daukagu eraldaketarako borondate politikoan, eta tokiko herritarren eskaerak eta aldarrikapenak asetzeko borondatean.

3.3. Jarduteko printzipioak

Zein jarreratik heldu behar dio tokiko administrazioak gida honetan proposatzen denari? Adibidez, ez ditu hutsik gabeko errezetak bilatu behar; eta beste sailekin komunikaziorik ez duen sail baten ikuspegi zorrotzetik ere ez da abiatu behar. Gida hau jarduera-printzipio hauek oinarri hartuta irakurtzea proposatzen dugu:

- Konpromiso politiko argia: udalerriek beren gain hartu behar dute trantsizioarako proposamen integrala gauzatzeko erronka. Horretarako, hura egituratzen duten bost ardatzak

elikatu behar dituzte, eta inertiak eta statu quo-a eraldatzeko saiakerak dakartzan arriskuak onartu, krisi sozioekonomiko eta ekologikoko une bati aurre egiteko funtsezko aldaketak direla sinetsita.

- Nolabaiteko ziurgabetasuna onartzea: errezeta magikoak ez dira existitzen, eta ezinezkoa da prozesuan zehar sortuko diren egoera guztiak aurreikustea. Horregatik, aurreikusi ezinezko tartea ontzat eman behar da, eta malgutasun nahikoarekin lan egiteko prest egon.
- Tarte estua denean, sormena: mugak hainbat bidetatik etor daitezke (aurrekontuetatik, eskumenetatik, araudietatik). Horiek oztopo izan daitezzen utzi beharrean, aurre egin behar zaie ikasteko aukera diren neurrian. Horretarako, muga horiek saihesteko moduak bilatu behar dira, oso gutxitan aurkituko baitugu benetan gaindiezina den oztoporik.
- Prozesua garrantzitsua da: batzuetan esaten den moduan, emaitzarik onena prozesu on bat da. Nahi duguna lortzeko, funtsezkoa da gauzak egiteko modua eta ematen ditugun urrats zehatzak zaintzea. Baina gainera, balioa ere badauka bere horretan. Zentzu horretan, moduak jasangarriak izan behar dira ingurumenaren aldetik, eta islatu egin behar dute demokratizazioaren, lanen berrantolaketaren eta komunitatearen nozioa eraikitzearen bilaketa.
- Ikuspegi holistikoa: egitura administratiboa, maiz, oso sektorizatu dago. Horren aurrean, ikuspegi holistikoa, integrala eta zeharkakoa garatu behar dugu, planak eta proposamenak definitzeko. Horrek lagundu egingo digu ekiditen, adibidez, arlo batek bere intereseko politikak —baina beste arlo batekoekin inkoherenteak— garatzea; edo bi arlok gai bera lantzea ahaleginak bikoiztuta, etab. Aldaketa sakonak behar dira, eta beraz, ezin dira gauzatu ahaleginak batu gabe eta sinergiak sortu gabe.
- Erakundeetatik... eta jendearengandik: Erakundeen ardura da lurraldeetan bizikidetzak egokia bermatzea, baina ez dute bakarrik lan egin behar. Maiz, gizarte zibilak, antolakundeak edo mugimenduek proiektu publiko eraldatzaileak garatzen dituzte; haietatik ikasi daiteke eta administrazio batek erraztu eta indartu ditzake, betiere kooptatzea edo herriarren antolaketa desaktibatzea saihestuz.
- Testuingurura egokitzea: Eraiki beharreko proiektu-motak honako ezaugarriek baldintzatuko dituzte: udalerririk horien tamaina eta ezaugarri soziodemografikoak; landa-eremukoagoak edo hiritarragoak diren; geografia, paisaia eta ondasun naturalak; herritarren antolamendu-maila, eta abar. Horrek guztiak baldintzatu dezake lehenesten diren jarduera-eremuak edo estrategiak askotarikoak izatea.
- Epe luzerako prozesuak: hemen proposatutakoak eraldaketa sakonak dira, eta denboran finkatzen joatea eskatzen du. Horretarako, tresnak behar ditugu, hala nola azterketa eta plangintza, eta etengabeko jarraipenerako eta baloraziorako tresnak. Epe luzean pentsatzeak aurre egiten die zuzenean hauteskunde-erritmoei. Horregatik, proiektu horien eraikuntzan parte hartzea ez da soilik helburu bat; tresna bat ere bada, herritarrek aldatketak bereganatu ditzaten eta beraz, gerta daitezkeen gorabeheren aurrean herritarrek defenda ditzaten.


4. Neurri eraldatzaileak

Jarraian zazpi neurri azaltzen dira; ahalmen eraldatzaile nabarmena daukate, elkarren artean konbinatzen diren neurrian, batez ere. Ikusiko dugunez, osagarritasun-tartea handia da, baita haien arteko sinergiak ere. Lehen bost neurriak trantsizio-ardatz espezifikoekin lotuta daude. Azkenengo bi neurriek, aldiz, eraldaketak ezartzen diren lurraldeari buruzkoak dira. Neurri bakoitzean, kontuan hartu beharreko hainbat elementu iradokitzen dira, elkarren osagarriak.

Hainbat arrazoiengatik hautatu dira neurri hauek: horietako batzuk, hain zuzen ere, lurralde batzuetan eskarmentu handia dutelako jaso ditugu, ez ordea beste batzuetan (adibidez, emakumeen etxeetan). Beste batzuetan, udalerrri askoren egiteko moduaren parte dira, baina ezartzeko modu zehatzak ez du neurri horien ahalmen eraldatzailea ateratzen; hala gertatu ohi da, askotan, ez direlako osotasuna birpentsatzeko borondateetik lantzen, baizik eta neurri isolatu gisa (hori da merkaturatzeko zirkuitu laburren kasua, azalera handiko saltokien sustapenarekin, enpresen nazioartekotzearekin eta abarrekin batera). Azkenik, beste neurri batzuk berritzaileagoak direlako eta, beraz, iradokitzaileak izan daitezkeelako txertatu ditugu (adibidez, energia positiboa duten lurraldeen nozioa edo zaintza-espazioak).

Zazpi neurri horiez gain, badira beste bi, zutabe deitu ditzakegunak, eta beraz, ez direnak modu espezifikoan azaltzen. Neurri horiek honakoak dira:

- Benetan parte-hartzaileak diren prozesuak abiatzea, udal-politikak diseinatu, ezarri eta ebaluatzeko orduan.
- Batetik, politiken koherentzia, ezarritako trantsizio-ardatzetan aurrera egiten laguntzen duela ziurtatzeko; eta bestetik, erosketa eta kontratazio publikoak, koherentzia horretarako funtsezko tresna gisa.



4.1. Oinarrizko tresnak

4.1.1. Parte-hartze erreala

Herritarren parte-hartzea ez da ulertu behar ikuspegi instrumental batetik politika publikoak hobetzeko modu gisa; adibidez, herritarren benetako beharretara hobeto doitzeko. Halako ondorio onuragarriak gertatu daitezke, baina ardatza beste bat izan behar da. Herri-tarrek tokiko politiketan parte hartzea modu bat da demokrazia ordezkatzailerak demokrazia zuzenaren formularekin osatzeko. Botere politikoa erakundeen eta herritarren (eta horien segmentu askotarikoen artean) banatzeko prozesuaren alde egitea dakar. Banaketa-prozesu hori continuum batean zehar gerta daiteke, zeina informaziotik abiatuta, kontsultara, adostasunera, erabakira eta kogestiora doan. Kontua ez da soilik jendeak gai publikoei buruz hausnartzeko eta manifestatzeko gaitasuna izatea, baizik eta gai horiei buruz kolektiboki erabaki ahal izatea.

Herritarren parte-hartzean pentsatzean, bi gako izan behar dira buruan. Batetik, kontuan hartu behar da parte-hartzea ez dela inprobisatzen. Bitartekoak, tresnak eta kanalak behar dira. Gida asko daude, orokorrak (adibidez, [hemen](#)) zein espezifikoak. Horiek erabiltzean, jakin behar dugu ez direla prozesu errazak, eta egoera zehatz bakoitzera egokitu beharko direla. Parte-hartzea ere ez da inprobisatzen, hau da, beharrezkoa da parte-hartzearen kultura bat eraikitzea. Erakundeek eta herritarrek ikasi egin behar dute, eta elkarrekin demokrazia zuzenaren kultura eraikitzen joan. Bestalde, gogorarazi behar da parte-hartze prozesuak existitzeak ez dakarrela nahitaez herritarren parte-hartzea. Eta are gutxiago askotariko herritarren parte-hartze aktiboa (informatua eta ahaldundua), batez ere desoreka sozialeko egoeran dauden pertsonena.

Herritarren parte-hartzea, demokrazia zuzenaren formula gisa, edozein erakunde-eremutan gerta daiteke ([hemen](#) gida orokor bat dago). Aipa ditzagun horietako bi, ziklo politikoaren *hasierari* buruzkoak (baliabideak zertara bideratu erabakitzea) eta *itxierari* buruzkoak (egin-dakoaren balorazioa), ulertuta ziklo hori etengabeko atzeraelikadura dagoela:

- **[Aurrekontu parte-hartzaileak](#)**: Abiapuntua herritarren eguneroko behar nagusiak identifikatzea da, baita horiek konpontzeko moduak ere, eta tokiko gastu publikoan sartzea. Hemen Nafarroako tokikotasunari zuzendutako [gida](#) bat dago. Formula ugari daudenez, Aurrekontu eta Plangintza Parte Hartzaileen aldeko Nazioarteko Plataformak honako printzipioak adostu behar izan zituen 2011n: funtzionamendu-arauak jendeak erabakitzea; parte-hartzea bermatuta egotea fase guztietan; erabakiak lotesleak izatea; jarraipena egiteko eta kontuak emateko sistemak ezartzea; parte-hartzaileen zuzeneko demokrazia indibidualen oinarritzea; eztabaida publikoan parte hartu ohi ez dutenak kontuan hartzeko ekintzak aurreikustea; eta beharrezko denbora eta informazioa bermatzea, beharrezko laguntza tekniko eta administratiboa emanez. Aurrekontu horiek genero ikuspegia txertatu beharko lukete, bermatzeko politika publikoak berdintasuna lortzeko tresna gisa funtzionatzen dutela. Genero ikuspegia duten aurrekontuei buruz: [hemen](#) eta [hemen](#).
- Auditorerza soziala, kontuak emateko mekanismo gisa ulertuta, eta aukera ematen diena herritarrei (antolatutak egon ala ez) erakundeen jarduna eta politika publikoak ebaluatzeke. Baliabide publikoen erabileran eta administrazioan gardentasuna bermatzeko modu bat da. [Gida honetan](#) azaltzen dute nola egin. Auditorerzak egin daitezke politika zehatzetarako edo, adibidez, zor publikoaren globaltasuna ebaluatzeko ([hemen](#) kontsultatu daiteke zorraren gaineko udal auditorerza herritarra egiteko gida).

4.1.2. Politiken koherentzia

Ikuspegi horretatik, Administrazioari eskatzen zaio premisa horiek *egiteko publiko* osoan txertatu ditzala, funtsezko eginkizuna izan baitezake motor eta eredu gisa. Halaber, politika guztiak zentzu berean doazela bermatzeko eskatzen zaio, inkoherentziak saihestu eta sinergiak sortuta. Nahiz eta koherentzia hori helburu zaila izan, erakundeek baliabideak eta espazioak behar dituzte hori sustatzeko. Gehien landutako tresnetako bat, itxuraz abstraktuagoak edo teorikoagoak diren ikuspegiak nola txertatu ikusten uzten duena, erosketa eta kontratazio publikoetan irizpide sozialak (genero-berdintasuneko irizpideak barne) eta in-

gurumen-irizpideak sartzeari. Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 9/2017 Lege berriaren aldaketak barne hartzen dituzten bi gida erabilgarri: [Santiago Lesmes Zabalegui eta Zentzuz Kontsumitu](#), eta [CEPES](#).

Sarritan, kontratuak esleitzerakoan, irizpide horiek klausuletan jasotzen dira. Hala ere, dimentsio gehiagotatik eragin daiteke.

- Zer kontratatu: Kontratuaren xedea zehazterakoan, gizarte- eta ingurumen-erantzukizuneko irizpideen arabera egin daiteke, gizarte- eta ingurumen-arloko zehaztapenak edo preskripzioak ezarri; edo kontratua lotifikatuz eta loteren bat erreserbatuz, etab.
- Nor kontratatu: hainbat mekanismori esker, maniobra-tarte handia dago enpresak hautatzeko orduan. Enplegu-zentro bereziekin eta laneratze-enprekin erreserbatutako kontratuak (kasu batzuetan, ekonomia solidarioko entitateekin); kontratu txikiak eta enpresa arduratsuak bultzatzeko gonbidapenak; kontratuaren xedea gaitasun sozial espezifikoa eskatzen dituenen, kaudimen tekniko sozialeko irizpideak ezartzea; arau jakin batzuk betetzen ez dituzten enpresak kontratatzea debekua...
- Zer baloratu: Fase hau egokia da irizpideak sartzeko. Horregatik, beharbada, gehien erabiltzen den bidea da. Esleipen-irizpide sozialak edo ingurumen-arlokoak sartzean datza: bidezko merkataritza; giza eskubideak babestea eta Lanaren Nazioarteko Erakundearen hitzarmenak betetzea; enpresen edo erabilitako produktuen erantzukizun-etiketak edo -ziurtagiriak; bazterkeria-arriskuan dauden pertsonak laneratzea; genero-ikuspegia; ingurumena; ekonomia soziala... Bide hori benetan erabilgarria izateko funtsezko arazoe-tako bat da eskaintza ekonomikoa pisu handieneko irizpide bihurtzeko joera, eta beraz, erabakitzailea izatea. Inertzia hori *araututako betebeharra* dela ulertzen da, nahiz eta prezioak nahitaezko gutxieneko ponderaziorik ez duen. Ponderazio egokiena egoera bakoitzaren arabera definitu behar da, betiere *lowcost kontratuak* saihestuz, esleipen-irizpideak ausarkeriazko bajei buruzko beste batzuekin osatuz, eta lan-kostuak islatzeko eskatuz, hitzarmen kolektibo aplikagarriak errespetatzen direla bermatu ahal izateko.
- Zertara behartu: exekuzio-baldintza bereziak —sozialak eta ingurumen-arlokoak— ezarri daitezke, esleipen-irizpide berberak erabiliz (kasu honetan irizpideak ez dira puntuatzen; bete egin behar dira ondasuna edo zerbitzua ematerakoan).
- Nola egiaztatu: seguruenera, kontratazio publiko arduratsua bermatzeko gutxien garatu den bidea da. Izan ere, esleipenean klausulak sartzeari gero eta ohikoagoa da azkenaldian, baina gutxitan egiaztatzen da betetzen direla. Egiaztapen-sistemen diseinua, beraz, kontu berritzaile samarra da, eta horretan lan egitea merezi du, [Santiago Lesmes Zabalegui y Zentzuz Konstumituk](#) proposatutakoaren bidetik.

Azkenik, adierazi behar da gizarte-, kultura- eta osasun-zerbitzuak emateko beste mekanismo batzuk erabil daitezkeela, hala nola itunak, hitzarmenak edo diru-laguntzak. Formula horien arabera, posible da, halaber, arestian aipatutako irizpide sozialak edo ingurumen-arlokoak txertatzea.

4.2. 1. neurria: Energia positiboa duten lurraldeak

Trantsizio energetikoaren aldeko Sarearen ideia hartuta (Réseau pour la transition énergétique), energia positiboa duen lurralde bat (TEPOS) honela definitzen dugu: “Energia neurritz eta efizientziaz erabilia, behar energetikoak ahalik eta gehien murrizteko eta tokiko energia berriztagarrien bidez asetzearen alde egiten duen lurraldea”. Tokiko erakundeek jardunaz harago doan proposamena da, herritar guztiak energia gaiez birjabetzea proposatzen baitu. Baina tokiko erakundeek ere zuzenduta dago modu espezifikoan, ekintza zehatzak abiatu ditzaten eta trantsizio energetikorako baldintzak erraztu ditzaten.

TEPOS deitzen diogu energia-paradigma aldatzeko konpromisoa hartzen duen lurraldeari:

- Energia, erabilerari dagokionez, erantzukizun indibiduala eta kolektiboa da; kontsumoa neurtuz eta efizientzia energetiko handiagoaren bidez murriztearen alde egiten du. Pertsona eta gizarte-eragile guztiak dira aldaketa horren erantzule, bai zuzeneko kontsumoari dagokionez, bai zeharkako kontsumoari dagokionez (adibidez, kontua ez da soilik pentsatzea zenbat energia kontsumitzen duen auto elektriko batek, baizik eta produktuaren bizi-ziklo osoari erreparatzea: zenbat energia kontsumitzen duen hura ekoizteak, merkaturatzeak, kargatzeko sarea instalatzeak, etab.).
- Energiaren ekoizpena oso anitza da: gaur egun kanpotik datozen erregai fosilekiko mendekotasun handitik hasita, bertan sortutako energia berriztagarrietaraino, autohornikuntzarantz ahalik eta gehien aurrera eginez. Autohornikuntza gertatzen da subjektu kontsumitzaileak (etxe bat, eraikin publiko bat, udalerrri bat, etab.), bakarrik edo energia-komunitate baten baitan, kontsumitzen duen energia sortzen duenean, eta soberakinak saldu edo partekatu ditzakeenean.
- Energia oinarritzko ondasuntzat hartzen da; erakundeek beren gain hartzen dute pertsona guztiak duintasunez bizitzeko energia nahikoa eskuratzeko eskubidea izateko erantzukizuna, pobrezia energetikoa ezabatze aldera.

TEPOS delakoek planteamendua jaso dugu nozio iradokitzailea dela iritzita, uste baitugu marko honek modu nahiko integralean jasotzen dituela energiaren arloan beharrezkoak diren eraldaketak. Hala ere, ez dugu proposatzen etiketa horrekiko atxikimendu hertsia. Jarraian, zenbait tresna eta esperientzia bildu ditugu, energetikoki jasangarriagoak diren udalerririak lortzera bidean lagundu diezaguketenak.

Tresna horiek hainbat ekintza-ildo biltzen dituzte. Lehenbizi, udal konpromiso bat esplizitu egitea. Bigarren, energiaren erabilera-mailako eraldaketak, batetik kontsumoa murrizteko eta bestetik efizientzia hobetzeko, hainbat arlotan: etxeetan eta saltoki txikietan, industrian, instalazio publikoetan eta garraioan. Hirugarren, energiaren sorkuntzan eta banaketan aldatzeko egitea, iturri berriztagarrietarantz eta sare lokaletarantz jotzearen alde eginez. Kontsumoan duen eraginarekin batera, lurraldeen energia-burujabetzarantz aurrera egitea da helburua. Azkenik, neurriak plan integraletan uztartu behar direla proposatzen dugu.

ENERGIA POSITIBOA DUTEN LURRALDEAK

Udal konpromisoa

Udalek bat egin dezakete [Klima eta Energiari buruzko Alkatetzen Mundu Itunarekin](#). 2008. urtean abiatutako ekimen honen bidez, udalerriek konpromisoa hartu dute EBk klimaren eta energiaren arloan dituen helburuak errespetatzeko eta gainditzeko. Sinatu ondoren, ekintza-plan bat bidali behar da eta, ondoren, emaitzak monitorizatu. Espero da konpromiso-adierazpena hurrengo urratsak beteko dituzten ekintza bihurtzea. 2019ko amaieran, EAEn 16 udalerrik sinatua zuten, Nafarroan 71k eta Iparraldean batek.

Instituzioen konpromisoarekin batera, udalerrietan parte-hartze prozesuak ere egon daitezke eta behar dira, herritarrek eredu energetikoa aldatzeko eta kontsumoa murrizteko beharra onar dezaten, eta kooperatibetan eta abarretan parte hartzea egokia izan dadin. Horrela baino ez da izango osoa udalaren konpromisoa. [Hemen](#) adibideak eta metodologiak kontsulta daitezke.

Energia-kontsumoa eta -efizientzia

Etxeak eta saltoki txikiak

Maila honetako aldatetaren adibide bat [Gipuzkoa Argitu programa](#) da, GFAk 2015ean garatu zuena. Fase pilotuan 50 udalerritan garatu zen. Abiapuntuko ideia da energia-kontsumoa ezagutzea funtsezkoa dela jarrera aktiboa hartzeko kontsumoa murrizteko bidean. Horretarako, etxebizitzetan neurgailuak instalatu ziren, eta jarraipena egin zen denbora errealean web-plataforma baten bidez. Tolosako etxebizitzetan ez zen neurgailurik instalatu behar izan, informazio hori Tolargi udal elektrizitate-banatzailleak ematen baitzuen. Bigarren urratsa efizientzia eta neurritasun energetikoko neurriei buruzko informazioa ematea da, herrietan tailerrak, gidak eta abar eginez. Hirugarren urratsa etxeak energia berriztagarrietara aldatzera animatzea da, bai merkaturatzailea aldatuz, bai autohornikuntzarako iturriak instalatuz.

Industria

Industria mailan eragiteko adibide bat [Algecirasko Badiako Portu Agintaritzaren instalazioetako efizientzia energetikoaren proiektua da](#) (APBA); energia-kontsumoa %50ean murriztea du helburu. Honako ekintzetan datza:

- APBAko eraikinetako instalazio elektrikoak eta klimatizazio-instalazioak pizteko eta itzaltzeko kontrol automatikoko sistema
- Pizteko 3. kontrol automatikoko sistema aldatzea. APBAko eraikinak klimatizatzeko eta argitatzeko ekipo berriak.

Instalazio publikoak

Udalak, berez, energia erabiltzen duten eragileak dira, eta erabilera hori aldatzeari buruzko adibide asko daude. Horixe da [Asparrenako](#) udalaren kasua, adibidez. Energia-burujabetza helburu martxan jarri dituzten neurri ugarien artean, instalazio publikoetan kontsumoa murrizteko neurri hauek aipa ditzakegu:

- Argiak LEDera aldatzea hamar herrietako argiteria publiko osoan eta Asparrena – Donemiliaga industrialdean. (2016-2017).
- [OrbEEt](#) proiektuan parte hartzea: askotariko jarduerak udaletxearen energia-kontsumoan duten eraginari buruzko aholkularitza, denbora errealean. Aholkularitza horren bidez, pertsonen jarrera aldaketak lortu nahi dira, haien jardueren inpaktuari buruz gehiago dakitelako.

Argiteria publikoa aldatzea efizientzia hobetzeko modu erraza izan da hainbat udalerritan, adibidez [Ean](#) edo Donostian. Era berean, udal-bulego edo -instalazio ugaritan kontsumoa murrizteko/efizienteago bihurtzearen alde egin daiteke. Esaterako, [Muskizen](#) efizientzia energetikoa hobetzearen alde egin dute; ez soilik argiteria publikoan, baita ikastolan, udal frontoian, kultur etxean eta kiroldegian ere. Eta instalazio horien efizientzia hobetzeko modu asko daude: [Abanto-Zierbenan](#) jaso diren artean, plan zabalago baten baitan, honakoak daude:

- Goritasun-lanparak errendimendu handiagoko lanparekin ordezteak.
- Argien sektORIZAZIOA eta piztea hobetzea
- Argiak automatikoki geldiarazteko gailuak instalatzea
- Egungo erradiadore elektrikoak kontsumo txikiko erradiadore elektrikoekin ordezteak
- Udal-eraikinen kontsigna-tenperatura 21 °C-tan erregulatzea neguan eta 25 °C-tan udan
- Udaletxeko ekipo informatikoak automatikoki itzaltzea
- Udal-energia kudeatzeko sistema ezartzea eta energia-kudeatzailearen figura sortzea
- Argiteria publikoko koadroetan teleaginte- eta kontrol-sistemak instalatzea
- Ohiko semaforoak LED motako semaforoekin ordezteak

<p>Garraioa</p>	<p>Energia-kontsumoa murrizteko modurik onena garraio publikoaren eta oinez edo bizikletaz mugitzearen alde egitea da. Udalaren bizikleta-zerbitzuak martxan jartzea eta bidegorri-sareak sustatzea dira neurri ezagunenak. Baina badaude beste batzuk, hala nola hirietan estaziorik gabeko bizikleta-sistema partekatuak sustatzea. Bizikletari buruzko udal-ordenantzak koordinatzeko gomendioak aurki daitezke hemen. Halaber, posible da Bizikletaren aldeko hirien Sarera atxikitzea.</p>
<p>Sortu eta banatzea / Berriztagarriak</p>	
<p>Berriztagarrien tokiko merkaturatzaileak kontratatzea</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Udalak energia garbia kontratatzea: Udalek kanpoan sortutako energia kontsumitzen jarrai dezakete, baina berriztagarriak kontsumitzera pasa daitezke, merkaturatzailea aldatuta. Adibidez, Eako Udalak lizentziazio publikora atera zuen udalerriko argiteria guztia, eta pleguetan ezarri zuen enpresa hornitzaileak bermatu egin behar zuela erosten zuen energiaren %100 iturri berriztagarrietatik zetorrela. • Energia garbiak merkaturatzen dituzten enpresetan parte hartzea: udalek kooperatiba-enpresetan parte har dezakete. Alde batetik, enpresa horiek energia garbiak merkaturatzen dituzte (beste banaketa-enpresa handiago batzuei erosten dizkiete, eta horiek ere energia berriztaezinetan oinarrituta sortzen dituzte), eta, aldi berean, energia-sorkuntza autonomoan aurrera egiten dute. Adibidez, Usurbil, Bera, Araia-Asparrena, Orendain, Alegia, Ea, Tolosa, Busturia, Leitza eta Hernani bezalako udalerriek Goienerrekin lan egiten dute. • Beste aukera bat da udal enpresa merkaturatzaile bat sortzea, bere gain har dezan merkaturatutako energia guztia berriztagarria dela bermatzeko erantzukizuna. Hala egin dute, adibidez, Izaban: Ezka Ibaia Energía sortu dute. Tolosan, Tolargi enpresarekin egiten dute.

Berriztagarriak sortzeko eta banatzeko udal-sareak

Udallerriek erabiltzen duten energia ekoizteko apustua egin dezakete, bai elektrizitaterako bai berokuntzarako. Energia-sorkuntza hainbat iturritatik etor daiteke, eta horrela, lotu egin daitezke jasangarritasun-helburu propioak dituzten beste prozesuekin:

- Energia hidraulikoa: [Garesen](#), udaletik elektrizitatearen sorkuntza berreskuratzea erabaki dute, eta berreskuratu egin dute bertan behe-ara utzitako Electra-Regadío zentral minihidraulikoa.
- Energia fotovoltaikoa, mikrosorkuntza banatuaren alde eginez: udal-bulegoetan eguzki-panelak instalatzea, eta etxeetan, negozioetan eta industrian instalatzea sustatzea... Hala egin dute [Garesen](#).
- Biomasa bidezko bero-sareak: Udal-berokuntza sistema instalatzea, udalerrietako onura publikoko mendiak garbitu, mantendu eta kontserbatzearen bidez jasotako zura erabiliz. Badaude halako esperientziak [Okinan](#), [Asparrenan](#), Tuteran, Zuberoan, Aramaion.
- Eredu mistoak ere badaude, hala nola [Lizarragako mikrosarea](#); plaka fotovoltaikoen bidez energia sortzea eta uraren ponpaketa banatua konbinatzen ditu. Izan ere, sortutako energia biltegitratzen uzten duen sistema baita. Energia horrekin elikatzen dituzte argiteria publikoa, frontoia, kontzejuko eraikinak, kontsulta medikoa eta auto elektrikoak kargatzeko gun bat.

Elektrizitatearen sorkuntza banatuarekin batera, banaketa energetikoaren (ber)udalekotzea ere egiten da. Energia-banaketa kontrolatzeak areagotu egiten ditu pobrezia energetikoari aurre egiteko udal-gaitasunak. Udal banaketa-enpresen adibideak dira [Tolargi](#) Tolosan eta [Elektra Urdazubi](#) Urdaxen.

Praktika integralak	
Trantsizio energetikoko planak	<p>Zenbait udalerritan energia modu integralean lantzen ari dira, plan espezifikoen bidez. Horien artean daude Basauri (2013-2020), Tolosaldea (2015), Donostia (2011-2020), Errenteria (2015, 2018an eguneratua). EHTik kanpo, Bartzelona (2016-2019) edo Le Mené aipatu daitezke.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Tolosaldeko plana honakoak azertu ondoren egin zen: energia-balantzea, hainbat energia-adierazle eta kontsumoa murrizteko potentziala hainbat arlotan (etxebizitza, mugikortasuna, jarduera ekonomikoak, eraikinak eta instalazioak) eta energia berriztagarri mota ezberdinak sortzeko potentziala (hidroelektrikoa, eolikoa, geotermikoa, biomasa eta biogasa). Hortik aurrera, kontsumoa murrizteko eta berriztagarriak sortzeko ekintzak definitzen ditu eremu horietan guztietan. Ekintza guztiak hiru urratsetan planteatzen dira: kontsumoa aurreztea, energia ekoiztea eta, modu osagarrian, horrek guztiak tokiko ekonomia dinamizatzeko eta sustatzeko ematen dituen aukerak. • Frantziako Le Mené udalerrian, plan bat baino gehiago da trantsizio energetikorako politika. Ekintza berritzaileen artean “energien ibilbidea” aipa dezakegu; herriko esperientzia eredugarrien ibilbidea planteatzen du. Ibilbide horrek sentsibilizatzeko balio du, praktika onak zabaltzeko, eta industria-eremu jasangarriak ezagutzera bideratutako turismoa dinamizatzeko ere.
Klima-aldaketarako planak	<p>Trantsizio energetikoa eta klima-aldaketa ekintza publikorako bi eremu dira, estu lotuak, energia-kontsumoa murrizteak eta energia berriztagarrietara igarotzeak CO2 emisioetan duen eraginagatik.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Batzuetan, energia-dimentsioa, lehenik eta behin, klima-aldaketako planen esparruan sartu da, eta gero, berezko izaera hartu du. Horixe da Areatzako kasua hori da. Bertan, klima-aldaketaren aurka borrokatzeko 2010-2015 programaren ondoren, onartu egin zuten Energia jasangarriko ekintza-plana (2015-2020). • Beste kasu batzuetan, kontrakoa gertatu da: energia-planak abian jarri ondoren, klima-aldaketaren aurka borrokatzeko planak definituko dira, energia-helburuei heltzeko. Horixe da Gasteizen kasua. Udalerririk horrek, gainera, tokiko Energia Agentzia bat du politika horiei bultzada emateko, eta urtero argitaratzen du udalerraren energia-balantzea. • Beste leku batzuetan, bi gai horiek elkarren eskutik doaz edo joan dira beti. Legazpin, adibidez, “Energetikoki udalerririk arduratsua eta efizientea, eta mugikortasun atsegina duena” ildo estrategikoa txertatu dute klima-aldaketaren eta garapen iraunkorraren estrategian eta 2017-2024ko Tokiko Ekintza Planean.

Parte-hartze espazioak	<p>Cadizeko Energia-Trantsiziorako Mahaia. Webgunearen arabera, “herritarrek parte hartzeko gune iraunkorra da, non herritarrek, erakundeek eta udalak hiriaren etorkizun energetikoa definitzen lagunduko duten. Gune horretan egindako proposamenak udalari eta Cadizko energia elektrikoko enpresa erdipublikoari helarazten zaizkie, gauzatu daitezten; bestalde, ekintzak ere pentsatzen dira bertan, parte-hartzaileek zuzenean gauzatzen dituztenak”. Nahiz eta orain arte Mahaiaren ekintza nagusiak energia aurrezteko sustatzeko tailerretan zentratu diren (ardatz gisa hartuta etxeko kontsumoa murriztea eta pobrezia energetikoa saihestea), tartea ireki da aurretik planteatutako norabide guztietan proposamenak egiteko.</p> <p>Aipatutako Ermineta-Electra-Regadío proiektuaren helburua, Garesen, ez dauka soilik ingurumen-helburua, baizik eta eredu energetikoa aldatzeko bidean herritarrak erantzunkide egitea ere. Energiaren jabetzarako Talde Eragilea sortu dute; haren bidez, energia sortzeko aukerak herritarren eskura jarri eta horrekin lotuta etorkizunean herrian sortuko diren proiektuak bideratzea da asmoa.</p>
-------------------------------	--

4.3. 2. neurria: Merkaturatze zirkuitu laburrak

Merkaturatze zirkuitu laburrak (aurrerantzean, MZL) zuzeneko salmentan oinarritutako merkataritza-sistemak dira, harreman sozial eta kooperatiboak sortzea errazten dutenak; horrela, trukeetan ekitatea eta lurraldearekiko harreman iraunkorra bermatzen da. Ideia ezin da errazagoa izan: erakunde bitartekariak ezabatzea eta tokiko balio-katea ixtea da helburua. Malgutasunaren ideia bikoitzetik interpretatu behar dira (lurralde bateko bizitzari eusteko behar diren produktu guztiak ezin baitira lurralde horretan sortu), baita horizontaltasunetik ere (trukutzen duten pertsonen arteko elkar ezagutza eta bidezko truke-baldintzen bermea nabarmenduz).

Lehen sektorea da MZLen proposamena gehien garatuta dagoen sektorea (agroekologiaren aldeko apustuarekin lotuta), tokiko elikagaiak bertako biztanleak elikatzea bilatzen duena, eta alderantziz: tokiko elikagai-beharrak asetzeko behar adina tokiko ekoizpen egotea. Ildo horretan, Kontabilitate Zentroek aurrera egiten dute tokiko elikadura-sistema delakoak (SAL, gaztelaniazko siglen arabera) eratzen. Baina merkaturatzean oinarritutako beste edozein sektorerara ere hedatu daiteke, edozein ekoizpen industrial/manufaktura-ekoizpen eta zerbitzu barne hartuta. MZLek, hurbiltasunari ez ezik, ekonomia sozial eta solidarioari buruzko irizpideak ere txertatzen dituztenean, zirkuitu labur, ekonomiko eta solidarioak (ZLES) izenekoak lortzen dira. Elikagaien MZLek ikuspegi agroekologikoa txertatu ohi dute maiz, tokikoaren aldeko apustuak ekologikoaren aldeko apustuarekin (sasoikoa, transgenikorik gabekoa, etab.) bat egiten duen neurrian; baita baserritarraren aldeko apustuarekin, nekazaritza eta abeltzaintzako ustiategi handiekin kontrajarrita.

MZLak sustatzeko, hiru bide ditugu:

- Eskaria: tokiko biztanleek bertan ekoitzitako ondasun eta zerbitzuak kontsumitu ditzaten sustatu.
- Trukea: ekoizleen eta hornitzen direnen arteko lotura erraztu.
- Eskaintza: herrian sortutako ondasun eta zerbitzuen eskuragarritasuna handitu.

Behin egoera ezagututa, eragiteko modurik zuzenena zein den jakingo dugu, edo bestela, horietako batzuk modu integralean konbinatzearen alde egin ahal izango dugu.

MERKATURATZE ZIRKUITU LABURRAK

Egoera ezagutu

Tokiko merkataritzaren ahuleziak hainbat kausa izan ditzake, eta horietako batzuk testuinguruaren arabekoak izan daitezke: eskaera falta, merkaturatze-kanalik ez egotea edo tokiko ekoizpenak abian jartzeko finantzazio-zailtasunak. Horregatik, lehen urratsa egoeraren diagnostikoa egitea da. Diagnostikoa, normalean, jarduera-sektoreen arabera egin ohi da:

- [Artisau-arrantzako produktuen merkaturatzearen diagnostikoa](#): 2012an Galizian [egina](#). Egoera identifikatzen du kate-mailei dagokienez: Arrantza egiten duena, arrantza banatzen duena, arrantza merkaturatzen duena eta arrantza kontsumitzen duena.
- [Aiarako Koadrilla](#): Aiarako Kuadrilla osatzen duten bederlatzi udalerrietan tokiko nekazaritzako elikagaien sistemari buruzko diagnostikoa ekoizpenean, eraldaketan eta merkaturatzean zentratzen da, tokiko lan-merkatua finkatzeko, sektorea dibertsifikatzeko, tokiko merkataritza inplikatzeko eta merkatuak dinamizatzeko aukerak aztertuz.

Tokiko produktuen eskaria sustatu

Eskari publikoa sortzea

MZL martxan jartzeko, ezinbestekoa da tokiko ekoizpenaren tokiko eskaria egotea. Eta tokiko eskaria mobilizatu egin daiteke tokiko erakundeen esku dagoen eskaria handituz, edo herritarren artean tokiko kontsumoa sustatuz. Tokiko nekazaritzako elikagaien ekoizpenaren eskaerari dagokionez, funtsezko bide bat jantoki publikoak dira.

- Eskola jantokiak: Eskola-jantokiak udal-eskumenekoak ez diren kasuetan ere (EAEn, ikastetxe publikoen kasuan, Eusko Jaurlaritzaren esku-mena dira, baina 2019ko urritik aurrera hala eskatzen duten ikastetxeek beren sukaldeak erabiltzeko gaitasuna berreskuratuko dute), tokiko politiken laguntza funtsezkoa izan daiteke hurbileko elikagaien erosketara bultzatzeko. Gaur egun, EAEn, ikastetxeetako elikagai gehienak handizkarien bidez erosten dira, eta ez dira hurbilekoak. Beraz, hobetzeko tartea oso zabala da, [Cure platera-gure aukera](#) ekimenak proposatzen duenaren ildotik. Tokikotasunera ibiltzen hasi diren eskola-jantokiak adibideen artean, [Ekolapiko/ekolapiko](#) nabarmendu behar da: ekimen hau Donostiako Udalarekin lankidetzan sustatu zen lehenik, eta gaur egun zazpi udalerritako daude haur-eskolak barne hartzen ditu. Tokikotasuna azpimarratzea, kasu honetan, ekologikoaren aldeko apustuarekin lotuta dago.
- Baina udal-ekintzak bestelako eraberritze kolektiboen bidez ere egin daitezke:
 - Apustu aitzindaria udal-sukaldea ezartzea da, pixkanaka zerbitzuak (eskolak, egoitzak, etab.) integratzen joango dena. Horixe da [Urduñan](#) egin dutena. Hasieran adinekoren udal-egoitzarako bakarrik balio zuen, eta gaur egun, beharrezkoak diren egokitzapen-lanak egin dituzte menuak ikastetxera eramateko.
 - [RESELoC](#) proiektuak produktu ekologiko eta hurbilekoak oinarri dituen eraberritze kolektiboko esperientziak aztertu ditu, Nafarroan, Euskadin eta Akitania Berriko Euroeskualdean. Eragileen mapeoa [hemen](#) topatu daiteke. Aztertutako praktika onetako bat Iparraldeko lehen hezkuntzako ikastetxe publikoetako eskola-jantokiaren sarea da (ikastetxe batzuek sukalde propioa dute, eta beste batzuek udal-sukaldea baliatzen dute). Guraso Elkarteek aktiboki parte hartzen dute.

Eskari publikoa osatzeko, erakundeak kontsumo arduratsua bultzatu nahi duten erakunde eta alternatiben sareei laguntza eman diezaieke, elikagaien dimentsioa barne, hala nola [Saretuz](#) eta [Zentzuz Kontsumituk](#) egiten duten moduan. Laguntza hori hedapenean, finantza-babesean, logistikarako laguntzan eta bestelakoetan zehaztu daiteke.

<p>Ekoizpenaren balioa handitzen duten tokiko markak</p>	<p>Tokiko kontsumoa sustatzeko oso tresna erabilgarria dira tokiko markak, produktuen jatorria egiaztatzen dutenak; horrela, inguruko produktuak identifikatzeaz gain, horiekiko atxikimendua sortzea errazagoa da. Zentzu horretan hainbat esperientzia daude, hala nola Baztango Zaporeak marka, Baztango Udalak sustatua, eta Baserrikoa Debarrena marka.</p>
<p>Tokiko trukea erraztu</p>	
<p>Zuzeneko salmenta-puntuak</p>	<p>Udalek salmenta-puntuak bultza ditzakete, tokian ekoiztutako produktu ugari zuzenean merkaturatzeko.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Espazio fisikoak izan daitezke. Adibidez, Azpeitian, tokiko merkatua zaharberritzean, merkatuaren beraren eta bertako produktuen dinamismo txikia ikusi ondoren, udalak gune komertzial bat egokitu zuen: Eli-kagunea. Geroago, Elikagunearen kudeaketa lehiaketara ateratu zuen. Horrela, ekonomia sozial eta solidarioko ekimen batek hartu zuen lekukoa (Artxara Koop. Elk. Txikia). Badaude tokiko salmenta-puntu gehiago; esaterako, Agurainen. Puntu horiek tokiko ekoizpen agroekologikora bideratuta egon daitezke, Kixkurre-Kixkurgune nekazaritza denda kasu, hasiera batean Goierriko Landa Garapenerako Agentziak martxan jarritakoa. • Baina topagune birtualak ere izan daitezke, hala nola Saskika, Euskal Herri osoko produktuekin saski itxiak merkaturatzen dituen (hau da, eduki finkoa du eta ezin du kontsumitzaile bakoitzak definitu). Donostialdeko Landa Garapenerako Elkartearen ekimena izan zen hau. Beste adibide bat Le court circuit da, Frantzian eskualde mailan funtzionatzen duena. <p>Batzuetan, udalaren laguntza erakundeek sustatutako proiektuak abiatzearen kostuaren zati bat kofinantzatzera mugatzen da. Hori da Pirinioetako esperientziaren kasua. Trigo limpio ekimenean, haragi ekologikoa zuzenean zatikatze-gelan saltzeaz gain, etxera bidaltzen dute.</p> <p>Kontsumo-taldeak dira zuzeneko salmenta gisa definitu daitekeen modalitate berezi bat; bertan pertsona edo ekoizle-talde batek kontsumitzaile-multzo bat zuzenean hornitzen du. Modalitate asko daude, jaso nahi dena indibidualki erabakitze gaitasunaren arabera (saski itxia eta berdina gutzientzat, edo nahierara), jasotzeko modalitatearen arabera (ordu bakarrean, edo saskia jasotzeko leku batean uzten bada), kudeatzeko moduaren arabera (kontsumitzaileen dedikazio handiagoa edo txikiagoa eskatzen duen), eta abar. Udallerritik laguntza hainbat modutan laguntzea funtsezkoa izan daiteke, trukea egiteko espazio publikoak erraztuta.</p>

Merkatuak eta azokak

Euskal Herrian zehar, tokiko merkatuak eta azokak dinamizatzeko ekimen ugari daude, ia guztiak elikagaietan zentratuta (eraldatuak ala ez). Arlo horretan udalek eskumen argia dute, espazio publikoetako kaleko salmenta arautzen baitute. Ikusi [gida](#).

- Merkatu bakoitzaren maiztasuna aldakorra da. Egunerokoak izan daitezke (adibidez, [Eibar](#)), asterokoak (adibidez, [Tolosa](#)) edo hilerokoak (adibidez, [Villanueva](#)). Ezohiko azokak ere ospatzen dira (adibidez, Urteberrikoa [Deban](#)).
- Horietako batzuk ibiltariak dira, kokaleku egonkor bat izan beharrean. Adibidez, [Donostialdeko merkatua](#). Horri esker, hainbat herriren arteko lotura garatzen da.
- Sarritan, tokiko garapen-agentzia batek (adib.: Donostialdea) edo landa garapenerako agentzia batek (adib.: Debarrena) dinamizatzen edo sustatzen ditu, eta tokiko ekoizle-elkarteekin lotuta bultzatzen dira, Zamudioren eta [Nekazamudio](#) tokiko ekoizleen elkartearen kasuan bezala.
- Inplikaturak eragile anitzen arteko interkonexioa sustatzen dute: ekoizleen eta kontsumitzaileen artekoa, bitartekariak ezabatuz eta zuzeneko elkar ezagutza erraztuz. Baserritarren arteko ezagutza, merkatuak erabil ditzaketelako sarea ehuntzeko eta ezagutzak trukatzeko espazio gisa; herritarren arteko ezagutza, sozializaziorako eta kontsumo-ohiturak aldatzeko espazioa atonduz, edo areago, haurren aisialdirako lekuak ezarri, [Azoka Bergarutzen](#) prozesuan bultzatu den bezala.
- Merkatuak dinamizatu daitezke blogekin, lehiaketekin, aparteko azokekin, errezetekin eta abarrekin. [Ordiziaren](#) kasua adibide ona da.
- Merkatu horiek ez dira zertan landa-eremuetako herrietara mugatu. Hiri inguruko nekazaritza ekar dezakete, [Baix Llobregateko](#) merkatuen kasuan bezala.
- Merkatuak tokiko produktuenak edo, zehatzago, produktu agroekologikoenak izan daitezke ([Zaragozako azoka agroekologikoa](#) bezala, adibidez, asterokoa). Artisautzak merkaturatzeko eta, are gehiago, dirurik gabeko trukeak egiteko aukera ere eman dezakete, trukerako espazioak egokituz (2008tik aurrera, [Entre lusco y fusco](#) asterokoko merkatu ekologikoan egiten duten bezala, Santiago de Compostelan).

<p>Tokiko txanponak</p>	<p>Tokiko zirkuitu ekonomikoak sustatzeko funtsezko bide bat tokiko txanponak eratzea da. Txanpon horiek lurraldean errotuta daude, hau da, bertan sortzen dira, eta tokiko ondasunen eta zerbitzuen trukea errazten dute. Tokiko txanponek, lurraldearekiko atxikimenduaz gain, beste helburu batzuk ere izan ohi dituzte: diruaren kontrol demokratikoa, pilatzea saihestea (oro har, <i>herdoiltzen</i> diren txanponak dira, hau da, balioa galtzen dute erabiltzen ez badira), eta tokiko kultura bultzatzea. Diru fisikoa, birtuala edo bien arteko konbinazioa izan daiteke.</p> <p>Txanpon mota hau sustatzeko, erakundeen jarrera askotarikoa izan daiteke (hona gida bat). Euskoaren kasuan, elkartuta dagoenez, aukera dago txanpon horrekin udal zerga edo tasa batzuk ordaintzeko, eta ordainketa batzuk egiten dira (elkartutako profesionalengandik jasotako zerbitzuen fakturak, kalte-ordainak).</p> <p>Esperientzia erreferenteen artean eusko delakoa daukagu; Lapurdin, Zuberoan eta Behera Nafarroan jarri zen martxan 2013an, eta gaur egun 3200 partikular, 1.000 profesional eta 17 udalerrri biltzen ditu, milioi eta erdi eusko zirkulazioan jarrita. Txanpon finkatuenean artean Bristoleko libera dago, (Bristol Pound), 2009tik funtzionatzen duena. Kasu honetan, udalak, Bristol Credit Union delakoaren bidez, txanpon hau milioi bat libera arte babesten du, eta hala, haren bihurgarritasuna bermatzen du.</p>
<p>Tokiko produktuen eskaintza sustatu</p>	
<p>Tokiko ekoizpena finantzatzen duen tokiko aurrezpena</p>	<p>Batzuetan, eskariak eta trukerako tresnek ez dute huts egiten, eskaintzak baizik. Hala, eskaintza sustatzeko hainbat modu daude. Horietako gehienak dokumentu honetako beste ataletan lantzen dira: <i>Elikatzen duten lurrrak</i> puntuan, <i>Eredu primario agroekologikoa</i> izenekoan eta <i>Ehun ekonomiko sozial eta eraldatzailea</i> izenekoan. MZLak sustatzeari dagokionez, Energia positiboa duten lurraldeak puntuan jasotako hainbat proposamen ere irakur ditzakegu. Baina, horiez guztiez gain, funtsezko beste bat ere aipatu behar da: tokiko aurrezkiak tokiko ekimenetara bideratzea. Lurraldearekin benetako konpromisoa duen banku publiko baten bidez egin daiteke. Finantza alternatiboen bidez ere egin daiteke; udalek hainbat modutan lagundu ditzakete, baina funtsean, haiekin elkartuz (pertsona partikularrak eta beste pertsona juridiko batzuk bezala) eta haien zerbitzuak erabiliz bai aurrezteko baita eguneroko finantza-kudeaketarako ere.</p> <p>Ildo horretatik sortu da Zuberoako CLE proiektua: tokikotasunetik gazteen ekimenak finantzatzen ditu, alde egin ez dezaten, eta beren jarduerak lurraldean bertan gauzatu ditzaten, horrela lurraldeko ekonomia-sarea sustatzeko. Proiektuari esker, 2000. urteaz geroztik 64 gaztek beren proiektuak abiatu edo sustatu dituzte.</p>

<p>Tokiko merkataritzarako lurzorua</p>	<p>Beste funtsezko bide bat tokiko merkataritza suspertzea da. Adibide gisa Amorebieta-Etxano udalerriko merkataritzasuspertzeko 2020 Plan estrategikoa; bertan hainbat neurri jaso dituzte:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Merkataritzako hirigune erakargarria eskaintzea, espazioak eta hiri-aldizariak berrurbanizatuz, eta zirkulazioa eta zerbitzu publikoak hobetuz. • Kalitatezko merkataritza- eta ostalaritza-jarduera eskaintzea, honakoak azpimarratuz: arauak eguneratzea, jarduera ekonomikoa abian jartzeko eta jarraitzeko laguntza, merkatariei prestakuntza ematea eta hutsik dauden lokalen erabilera bultzatzea. <p>Hiri-antolamenduaren esparruan, oso garrantzitsua da hurbileko saltoki txikiak lurzorua eskuratuko dutela bermatzea, eta beste aldetik, baita azalera handiko saltokiak egiteko lurzoru erabilgarria mugatzea ere. Laborantzarako lurra ziurtatzea ere funtsezkoa da; aurrerago aztertuko dugu hori.</p>
<p style="text-align: center;">Praktika integralak</p>	
<p>Tokiko elikadura-sistemak sustatzeko plan integralen baitan sar daitezke MZLak sustatzeko neurriak, besteak beste:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Sakanako Plan Estrategikoa 2014-2020 delakoak barne hartzen ditu, besteak beste, Iruztungo merkatua berreskuratzea, Dastatu-Sakana marka sortzea eta tokiko merkataritza suspertzea, belaunaldien arteko erreleboa sustatuz. • Bertatik-Bertara estrategiak, Urola Garaian, tokiko kontsumoa eta ekoizpena sustatzen ditu, besteak beste, honakoen bidez: diagnostiko bat, tokiko produktuak eraldatzeko zentro bat, baserriarrak prestatzeko zentro bat eta lur-funts bat. Estrategia hori 2017an gauzatutako Laitza-Konsumitzu parte-hartze prozesuan oinarritzen da, eta prozesu horretatik 2017-2019 plana atera zen. • Baserrikoa-Debabarrena ekimena 2012an jarri zuen abian DEBEMENek (Eskualdeko Landa Garapenerako Elkartea), eskualdeko udalen eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarekin, eta tokiko produktuen merkataritza suspertzea du helburu. Diagnostikoak, tokiko marka sortzea, inguruko jantoki eta jatetxeetan tokiko elikagaien erosketak sustatzea, merkaturatzeko hainbat bide martxan jartzea: merkatuak (ohikoak eta ezohikoak), kontsumo-taldeak eta online salmenta. • Azkenik, beste aukera bat aurreko ekintzak konbinatzea da, batez ere elikagaiak ekoizten dituzten herriak eta "hiriago" direnak lotuz, haien arteko merkataritza-fluxua dinamizatuz. Horixe da Danimarkan egin dutena, Kopenhageren eta Lejre eta Bornholm udalerrien artean. Tokiko produktuen hornidura sustatzeko, funtsezkoa izan da, halaber, udal jantokien konpromisoa. Ikusi hemen eta hemen. 	

4.4. 3. neurria: (Des)adostasunak erantzunkidetasunagatik

Denboraren eta lanen eguneroko banaketari erreparatzen badiogu (ordainduak eta ez-ordainduak, etxeak eta etxetik kanpokoak), ikusten dugu ezberdintasun handia dagoela etxe barruan; ezberdintasunaren funtsezko ardatzak generoa eta adina (neurri txikiagoan bada ere) dira. Halaber, desparekotasun handiak daude etheen artean, hainbat elementuren arabera: egitura (horrek ere eskubideei dagokienez desorekak dakartza, bizikidetzak modu legitimatuak eta aitortu gabekoak daudelako), estatus migratzailea (herritartasun-eskubideak definitzen dituena) eta baliabide pribatuak erabiltzeko ahalmena izatea (zaintza azpikontratatzeko gaitasun handiagoa edo txikiagoa). Hala ere, desparekotasun horiek ez dira beti begien bistakoak. Halaber, zaintzaz (geure bizitzaz eta beste pertsona batzuen bizitzaz) arduragabetu ahal izateak egoera hobean kokatzen gaitu, *zaintzarik gabeko* langileak eskatzen dituen lan-merkatuari eta espazio publikoari aurre egiteko (hau da, langileen disponibilitatea oztopatzen duen erantzukizunik gabe). Horregatik, zaintzak birbanatzeaz ari garenean pribilegioei heltzeaz ari gara. Eremu publikoko *kontratu sozialak*, bere baitan, ezkutuko *zaintza-kontratuak* du. Eta, hain zuzen, hori da ikusarazi eta aldatu behar den kontratuak:

- Lehenengo urratsa ezkutuko zaintza-kontratu horretaz ohartzea da: existitzen dela eta zein desparekotasunek osatzen duten. Horretako diagnostiko parte-hartzaileetarako hainbat tresna proposatzen dira.
- Hortik abiatuta, bizikidetzak modu berriak bilatzea da asmoa, etxe barruan zein bizitza komunitarioan, hainbat eragile sozioekonomiko tartean sartuta eta osotasun horren ardatza mugituta. Horregatik, adostasunez hitz egiten dugu.
- Aldi berean, beharrezkoa da desparekotasunez eta pribilegioez hitz egitea, eta horrek gatazka sozioekonomikoak ekar ditzake. Horregatik, desadostasunez hitz egiten dugu.

Erantzunkidetasunaren aldeko (des)akordio horietan aurrera egiteak, denbora- eta lan-banaketa berri batera eraman behar gaitu, non guztiok geure burua zaintzeaz arduratuko garen eta elkarzaintzako harremanetan inplikatu garen. Horretarako, aldaketa sakonak egin behar dira eremu publikoaren ardatz egituratzailean, bizitzaren eguneroko zaintzarekin bateragarriagoa izan dadin. *Kontratu sozial erantzunkide* berri bat (des)adostea da kontua. Kontratu horrek berekin ekarri behar du erantzunkidetasun integrala eraikitzea, herritar guztiak barne hartuko dituena, eta oinarrizko zutabe gisa komunitatea eta publikoa izango dituena. Ikus dezagun zein urrats eman ditzakegun horretarako.

(DES)ADOSTASUNAK ERANTZUNKIDETASUNAGATIK

Ezkutuko zaintza kontratua ikusarazi

Horretarako, hainbat tresna daude:

- [Erantzunkidetasun-diagnostikoak Madrilgo barrutietan](#): Zaintza lanen antolaketa soziala bere osotasunean lantzen dute, lurraldeek pertsonen ongizate fisikoa eta emozionala bermatzeko beharrei eta baliabideei erreparatuta. Honakoak aztertzen dituzte: (1) erantzunkidetasunaren eta kontziliazioaren pertzepzio subjektiboa; (2) espazio publikoaren konfigurazioa (mugikortasuna eta garraioa, etxebizitza); (3) administrazioak herritarrekin duen harremana; (4) eguneroko bizitza (denbora, adinekoak, aniztasun funtzionala dutenak, zaintzaileak, haurrak, gizarte-zerbitzuak, osasuna, hezkuntza); (5) ekoizpen-sare erantzunkidea (etxeko enplegua barne).
- Egungo *ezkutuko zaintza-kontratuak* gehien kaltetzen dituen kolektiboen egoera espezifikoari buruzko diagnostikoak. Adibidez: [Oreka-Sareak](#) egindakoak, Ermuan, Basaurin, Ondarroan, Getxon, Donostian eta Urola Garaiko Mankomunitatean familien zaintza langileei eta autonomia sustatzeko eta mendekotasuna artatzeko zerbitzuei buruz. Hori da, halaber, herri-mailan etxeko lanaren egoera baloratzen duten diagnostikoen kasua; izan ere, etxeko langileen egoera bereziki prekarioa da, eta, aldi berean, sektore hori funtsezko estrategia da etxe kontratatzaileen kontziliaziorako. Adibidez, [Lizarrako](#) diagnostikoa, AMILIPSek 2016an egina.
- [Zaintzaren analisi azkarrak](#): Intermon-Oxfamek landa- eta hiri-eremuetako zaintzaren antolaketa modu parte-hartzailean ebaluatzeko metodologia da; horrez gain, zaintza modu bidezkoagoan birbanatzeko aukera posiblei buruzko eztabaida zabaltzeko ere balio du. Eskuragarri dago prozesua martxan jartzeko [ardura dutenentzako gida bat](#) eta beste [gida bat](#) ezarri daitezkeen dinamikekin.

Esperientzia horiek guztiek bi puntu dituzte komunean:

- Modu parte-hartzailean planteatzen dira, ematen duten informazioaz gain, baliagarriak izan daitezen ere sentsibilizatzeko, hezteko eta pertsona guztien eguneroko bizitzan aldaketak egiteko beharraz jabetzeko.
- Lehen urrats gisa planteatzen dira, gero aldaketa eta ekintza zehatzak abian jarri ahal izateko. Horrela, normalean, plan zabalago baten abiapuntu gisa jartzen dira martxan. Horixe gertatu zen, adibidez, Donostian; lehenengo diagnostikoa egin zen, eta ondoren onartu zen [Zaintzaileentzako Udal Babes Plana](#) (2012-2014). Hala ere, alderantziz ere gerta daiteke. Horrela, adibidez, [Ablitas](#) herrian denboraren erabilerari buruzko inkesta bat egin zen, eta horrela, ikastetxe-ko ikasleek Kontziliazioaren Aldeko Tokiko 2. Itunean (2009-2011) parte hartu zuten.

Eztabaidatu eta urratsak (des)adostu

2000ko hamarkadaren erdialdean, gaur egun zokoratuta dagoen esperientzia bat jarri zen martxan, gerora orokortu diren ekintzei ateak ireki zizkiena. Kontziliazioaren Aldeko Tokiko Itunak dira, Nafarroa (1 y 2), Asturias eta [Andaluziako](#) hainbat herritan martxan jarritakoak. Itun horiek Europako Funtz Sozialaren kofinantzaketa jaso zuten, Berdintasunerako eta Emakumeen Erakundeak buru izan zituzten eta udal-sareekin lankidetzan gauzatu ziren (Udalerrien eta Probintzien Nafarroako Federazioa, Kontzejuen Asturiasko Federazioa eta Udalerrien eta Probintzien Andaluziako Federazioa).

Idea orokorra elkarriketa-mahai bat biltzea da, herritarrekin eta eragile sozialekin (gizarte zibileko erakundeak —emakumeak/feministak, auzokoak, guraso-elkarteak—, sindikatuak, erakunde publikoak eta talde politikoak, ikastetxeak, enpresa-erakundeak/merkataritza-erakundeak), egoeraz eztabaidatzen hasteko, ekintza zehatzak martxan jartzea baloratzeko, eta hori guztia abian jarri beharreko itun batean jasotzeko. Erakundeek laguntza teknikoa eman zuten, baita trukeko espazioak eta finantzaketa ere.

Oso esperientzia anitzak jaso ziren. Horietako askok aukera eman zuten gero zabaldu egin diren ekimenak abian jartzeko (ahalegina egiten zen praktika indartsuak eta erreplikagarriak aurkitzeko). Adibidez:

- Sentsibilizaziorako: Tafallako gazteek [Tú como yo](#) bideoklipa egin zuten.
- Zaintza-zerbitzuak: hala nola “espazio lagunak, bateratzeko espazioak” proiektua, zeinaren bidez [Los Arcos Zonaldeko Mankomunitatean](#), profesionalak ordezkatu egiten zituzten mendekotasun-egoeran dauden pertsonen senide zaintzaileak eta guraso bakarreko familiak.
- Zaintza eta truke komunitarioko espazioak: adibidez, [Fustiñanako](#) esperientzia, non adineko emakumeek bizirauteko teknologiak irakasten zizkieten gazteei (sukaldaritza, jantziak), eta aldi berean, gazteek komunikazio-teknologia berriak erabiltzen irakasten zieten adinekoei.

Berreskuratzea merezi duen esperientzia da, baina berrikusi beharrekoa, kontziliazioaren paradigmatik denon arteko erantzunkidetasunaren gaur egungo paradigmatara igarotzeko (adibidez, irabazi-asmoa duten enpresekin egon daitezkeen interes-gatazkak aitortuz, eta zaintza-gune autogestionatuak, ez soilik publikoak, ahalbidetzeko aukera txertatuz). Udalerrri batzuek, motu propio, ideiarri heldu diote berriki, [Valle del Egüés](#) kasuan bezala.

Erantzukizun publiko-komuna eraiki

Ardura publikoak bere gain hartzea

Funtsezkoa da erakundeek beren gain hartzea zaintza-lanen zati handi bat, gaur egun lan horiek etxeetan doan egiten baitira, edo zaintza-lana gutxieteko joera duen merkatuan erosten baitira. Erakundeek erantzukizun zuzena hartu behar dute beren gain, zaintzak jasotzeko eskubidea lan-eskubideekin zapaltzen ez dela bermatuz. Horretarako hainbat tresna dituzte:

- Privatizatu diren zaintza-zerbitzuak publiko egin ditzakete, edo publikoak izaten jarraitzen dutenak privatizatzen ez direla bermatu. EAEn, adinekoentzako egoitzetako plazen %32,2 zentro publikoetan daude oraindik (Bizkaian %25, Gipuzkoan %40,8 eta Araban %44,1); Nafarroan, berriz, %31,4. Hortaz, tarte handia dago mantendu edota hobetzeko. Udalekotzearen adibide gisa Norbegiako [Bergen hiriko](#) adinekoen bi zentro aipatu ditzakegu). Titulartasun publikoa mantentzearen adibide bat da Basauriko Etxe Maitia adinekoen udal-egoitza. Funtsezko beste zerbitzu nagusi, gaur egun eztabaidan dagoena, etxez etxeko laguntza zerbitzua da. Iruñean, Jerezen, Alboloten, Chiclanan eta Atarfen zerbitzu hori udalekotu dute (2017an guztiak). Aukera honen bideragarritasunari eta moduei buruzko azterlanak daude, adibidez, [hau](#) eta gidaliburuak, adibidez, [hau](#).
- Kontratazio publikoa funtsezko bidea da erantzukidetasuna hainbat zentzutan sustatzeko:
 - Kontratazio eta erosketak publikoetan genero-irizpideak sartzea erabakigarria da langile guztiak (ez soilik emakumeek) enplegua eta zaintza-erantzukizunak hartzea bateragarria izango den zehazteko. Era berean, egiten diren kontratuak generoaren eraginari buruzko txosten bat eskatzen bada, nahitaez baloratu behar da kontratu horrek herriko zaintza-lanen antolamenduan izango duen eragina. Horren adibide da Zaragozako Udalak, haren erakunde autonomoek eta udal-sektore publikoko erakundeek egindako kontratuak [Genero-klausula sozialak txertatzeari buruzko jarraibidea](#) agertzea, 2016an onartua. [Hona](#) ikuspegi hori nola txertatu azaltzen duen gida bat.
 - Haurrak zaintzeko eta mendekotasun-egoerak artatzeko zerbitzu publiko ugari daude gaur egun, baina ez dira kudeaketa zuzenekoak, azpikontratata baitaude. Lehen aipatutako udalekotzeaz gain, eragiteko beste modu bat kontratazio publikoa ezartzea da, zeharkako kudeaketaren ondorioz ez dadin eskainitako zerbitzuaren kalitatea devaluatu, ezta egindako zaintza-lana gutxietsi ere. [Gipuzkoako Foru Aldundiaren gizonen eta emakumeen berdintasunerako 2/2015 Foru Arauaren](#) 39.h artikulua araber, "erakundeek zaintza-zerbitzuak kudeatzea sustatu nahi da, enpresen errentagarritasuna zerbitzuaren degradazioaren eta zaintzaile profesionalen lan-baldintzen kontura lortzen ez dela bermatzeko". Horretarako, irizpide sozialak txertatu behar dira (genero-irizpideak barne, baina ez bakarrik), eta zeharkako kudeaketa hori Ekonomia Sozial Solidario eta Eraldatzailearen (ESSE) sustapenarekin ere lotu behar da.

Komunitatea indartzen

Baina zaintzak etxeetatik ateratzeak ez du esan nahi soilik erakundeen esparrura eraman behar direnik. Estrategia hori komunitatea indartzea-rekin bateratu behar da, eta hori hainbat bidetatik egin daiteke:

- Auzo- eta komunitate-sareak sustatuz: hori da [La escalera](#), proiektuak bilatzen duena. Proiektu hori Auzo Osasungarrien Estrategiaren (2016-2019) esparruan garatu zuen Madrilgo Osasun Sailak. Ahalduz komunitarioa bultzatu nahi du, osasunaren prebentzioa eta sustapena barne hartzen dituen zaintza-kontzeptuari lotuta, auzokideen atarrien bidez. Auzo-komunitateak indartzeko gako batzuk identifikatu ziren, eta [aplikazio praktikoko gida bat](#) bat egin zuten.
- Zaintza komunitarioak erakunde publikoetatik sustatu daitezke. Hori da Zumarragaren kasua; izan ere, tokiko zaintza-lanen antolaketari buruzko hausnarketan oinarritutako parte-hartze prozesu baten ondoren (emakumeen jakintza gutxietsiak berreskuratzeko helburuarekin), honako hauen alde egin zuten: hiri-baratzeak, harreman soziala garatzeko eta landareen, animalien eta gizakien bioaniztasuna sustatzeko gune gisa; zentro komunitario kogestionatu bat, zaintza-labore-tegi eta elkargune gisa, komunitate-sareak eta loturak sustatzeko; eta nahi ez den bakardadea prebenitzeko proiektu bat, dauden baliabide publikoekin koordinazioan eta auzo-sareak indartzean oinarritua. Esperimentari buruzkoak irakur daitezke [hemen](#).
- Erantzukizun hori gauzatzeko, halaber, baliabide publikoak bideratu behar dira gaur egun egoera prekarioenetan zaintza-lana beren gain hartzen dutenen eskubideak defendatzeko espazioetara. Hori da etxeko langileen kasua. Zentzu horretan, praktika on gisa, honako hauek identifikatu ditzakegu: 2019an Madrilgo Usera barrutian etxeko langile eta zainzaileentzako ahalduz zentroa zabaldu zen, eta haren kudeaketa Sedoac langileen erakundeari laga zitzaion; eta Zumaiaiko [Malen Etxea](#) zentroa, Zumaiaiko eta Zestoako Udalen laguntzarekin, besteak beste. Leku horietan, langileei harrera egin eta arreta integrala ematen zaie. Horretaz harago, elkarrekin antolatze eta euren eskubideen alde borrokatze espazio propioak dira.
- Egungo zaintza-lanen banaketa eraldatzeko konpromisoak definitzen du Ekonomia Sozial Solidario eta Eraldatzailea (ESSE), besteak beste. Beraz, kontratu erantzunkide berri honetan ere aurrera egiteko modu bat da ESSEa sustatzea (4. neurrian jasoa). [Hemen](#) aurki daitezke ESSA-ren praktikan erantzunkidetasuna aztertze gida bat.

Praktika integralak

Kontratu sozial erantzunkide berriaren bidean dauden praktika integralen artean Bartzelonako kasua dago. Ekonomia, Lana, Lehiakortasuna eta Ogasuna arloaren baitan, Ekonomia Sozial eta Solidarioaren Zuzendaritza dago. Eta bertan, martxan dago Denbora eta Zaintzaren Ekonomia Programen Departamentua. Departamentu horrek bi ekintza-ildo lehenesten ditu:

- Zaintzaren ekonomia, [Zaintzak demokratizatzeko gobernu-neurriaren](#), bidez ezarritakoa. Bi helburu ditu: zaintzaren zentraltasuna aitortzea eta gizarteratzea, tartean sartuz sare komunitarioa, administrazioa, merkatuak eta ekonomia soziala eta solidarioa.
- Denbora: bertatik [Denbora Itun](#) bat jarri da martxan. Horren asmoa da herritarrek eta udalak konpromisoa hartzea “denboraren erabileraren esparruko ekintzak gauzatzeko, desoreka sozialak murrizteko, bizi-kalitatea hobetzeko eta pertsonen zerbitzura egongo den ekonomia plurala sustatzen laguntzeko”. Itun horrek barne hartzen du [Ekintza Plan](#) bat.

4.5.4. neurria: Ekonomia sozial solidario eta eraldatzailea

Kooperatibismoaren eta mutualismoaren ondorioz, ekonomia sozialak ibilbide luzea du; lana antolatzeko modu desberdinei, horizontalagoei, lotuta dago. Ekonomia solidarioak lan-prozesua txertatzen den ingurunearekiko (bai ekosistemarekin, bai bertako giza harremanekin) konpromiso kolektiboaren dimentsioa azpimarratzen du; halaber, baita protagonista direnen bizimoduaren aldaketari dagokion dimentsioa ere. Eta, eraldatzailea diogunean, azpimarratu nahi dugu ekoizteko bestelako modu horiek ez direla beren baitan geratzen, baizik eta ehun sozioekonomikoa errotik aldatu nahi dutela.

2018ko urriaren 2an sinatutako [Bilboko Adierazpenak](#) dioen moduan, Ekonomia Sozial Solidario eta Eraldatzaileak (ESSE) “sistema sozioekonomiko bat eraiki nahi du, non pertsonak, haien komunitateak eta ingurumena egongo diren prozesu guztien erdigunean. Sistema horren helburua da bizitzaren alderdi guztietan jasangarritasuna bermatzea, eta munduko edozein lekutan, pertsona –emakume eta gizon– eta herri guztientzat ongizate ekitatiboa, inklusiboa, demokratikoa eta jasangarria sustatzea”. Honako printzipio hauetan oinarrituta defini dezakegu ESSEa⁴, argi utzita printzipio horien bidez ekonomia bere osotasunean birmoldatzea dela xedea:

- Enplegu duina eta egonkorra: lanpostu duinak sortzea da helburu nagusia. Eta duina diogunean, ulertzen dugu soldata nahikoa, egonkortasuna eta lanpostuan pertsona gisa hazteko aukera behar direla.
- Lanaz haragoko bizitzarekiko bateragarritasuna, bizitza pertsonala eta zaintza-konpromisoak barne hartuta. Langileak osotasunean ikustea, eta ez soilik eskulan gisa.

⁴ Printzipio horiek [Ekonomia Solidarioaren Cutunaren](#) sei printzipioetatik birformulatu dira (ekitatea, lana, ingurumen-jasangarritasuna, lankidetzat, “irabazi-asmorik gabekoa” eta inguruarekiko konpromisoa), eta [MARESetik \(2017\)](#) hartu dira.

- Ingurunea hainbat zentzutan zaintzea: lan-praktiken ingurumen-jasangarritasuna sustatzea, txertatzen diren komunitatearen bizi-kalitatean laguntzea, tokiko eta hurbileko sare sozioekonomikoei ekarpena egitea.
- Kooperazioa: bai ESSTko erakundeen artean, zein beste eragile batzuekin. Harreman-modu gisa lankidetzaren alde egiten da, eta ez lehiakortasunaren alde; baina baita proiektuen iraunkortasuna bermatzeko bide gisa ere.
- Parte-hartzea eta gardentasuna: erakundeak osatzen dituzten pertsonak dira erabakiak hartzeko prozesuen protagonistak. Barne-demokrazia errealeko egiturak dira, eta ingurunean txertatzen dira, komunitate osoaren parte-hartzea sustatzeko konpromisoarekin.

Gaur egun irabazi-asmoak gidatutako merkatuan ekoizten eta trukutzen diren ondasun eta zerbitzuak ekoizteko eta trukatzeko beste modu bat proposatzen du ESSEk. Horregatik deitzen diogu *merkatu soziala*. Baina beste harreman bat ere proposatzen du mundu produktiboaren (merkataritzakoa) eta erreproduktiboaren (merkataritzaz kanpokoa) artean. Merkatu soziala eragile aktiboa da ardurak etxeko arlotik arlo publikora ateratzeri dagokionez (adibidez, zaintza-kooperatibak sortuz). Eta lan-prozesua antolatzean, ez ditu behar erreproduktiboak etengabe merkataritza-ekoizpenaren premiaren mende jartzen. Horregatik guztiagatik, ESSEa funtsezkoa da bizitza jasangarriak lortzera bidean. Dena den, hau ez da ekimen instituzionala. Nola lagundu daiteke udaletatik?

Jarraian, herrietatik ESSEa sustatzeko neurriak aztertuko ditugu, nodoak ezarriz, lurraldean adarkatu daitezen bultzatuz, eta *eskaria* sustatuz. Horrek guztiak konpromisoa eskatzen die erakundeei, eta konpromiso hori bideratzeko mekanismoak daude. Azkenik, planteatzen dugu beharrezkoa dela lankidetzaren publiko-komunitario-kooperatiboaren paradigma berri baterantz joatea, lankidetzaren publiko-pribatuaren paradigmen gorakada gelditzeko, eta aldi berean, erakundearen irekitasuna beharrezkoa dela ulertzeko, irabazi-asmoaren inguruan egituratuko ez den sistema sozioekonomiko bat hedatzeko bidean.

EKONOMIA SOZIAL SOLIDARIOA ETA ERALDATZAILEA

ESSEen nodoak ezarri

ESSEen sareari laguntzeko tokiko administrazioek erabil ditzaketen zerbitzuak eta mekanismoak parte-hartzaileen eguneroko lotura errazten duten nodoetan kontzentratu daitezke, eragin biderkatzailea izanik. Zentzu horretan, hainbat esperientzia inspiratzaile daude. Esperientzia horien ezaugarria da hibridoak direla; izan ere, batetik, autoenplegu-modalitateak sustatzen dituzte (indibidualak edo kolektiboak, betiere ESSTren printzipioen arabera), eta bestetik, merkatarizatik kanpoko funtzionamendu-modalitateak (komunitarioa, denbora-trukean eta doako zerbitzuen horniduran oinarritua) ere babesten dituzte.

- **Iturola:** Hernanin dago eta Beterri-Burutza eskualderako funtzionatzen du. “Adimen Kolektiboko Laborategi” bat da, eta beren hitzetan, berrikuntzan eta eraldaketa sozialean oinarritutako esperientzia ekonomikoan topagune eta bultzada gisa funtzionatzen du. Eskualdeko udalek eta Gipuzkoako Foru Aldundiak babesten dute. Hiru zerbitzu-mota eskaintzen ditu: lanerako —autoenplegua zein lankidetzan— espazioak eta baliabideak (bulego partekatutakoak, bilera-gelak, prestakuntza-gelak, ekitaldi-aretoa, egongela eta sukaldea, armairuak, postontziak, Internet konexioa, fotokopiagailua, inprimagailua, eskanerra, garbiketa-zerbitzua, segurtasun-sistema, etab.); prestakuntza-zerbitzuak eta aholkularitza-zerbitzuak, ESSTko enpresak sortzeko/sendotzeko; eta prestakuntza-saioak, bertan errotuta dauden enpresek bertako beste enpresentzat eginak. Garrantzi handia ematen zaio komunitate- eta lankidetzan-dinamika sortzeari, baita eskualdeko beste eragile batzuekin sartzeari ere. Espazioa fisikoki erabiltzen duten erakunde eta pertsonentzako zerbitzuak eskaintzen ditu, baita eskualdekoei ere. Bertan parte hartzen dutenek ez dute diru-kopururik ordaintzen; denbora-ekarpena egiten dute.
- **Geltoki:** autobus geltoki zaharra [berreskuratzea](#) erabaki zuen, hutsik baitzegoen, ESSEen erreferentziarako zentro bihurtzeko Espazioa egokitu zuten eta lizitazio bat ireki zuten kooperatiba batek kudea zezan. Lizitazio hori berariaz sortutako Geltoki Iruña elkarteak irabazi zuen. Espazioa 2018. urtearen erdialdean zabaldu zen, eta gaur egun hainbat espazio ditu: erakusketa-gune bat, non zirkuitu ez-komertzialeko tokiko artistak sustatzen diren; produktu ekologikoak (gehienak tokikoak) eta beste ondasun eta zerbitzu batzuk (adibidez, artisautza txikiak) eta bigarren eskuko zein bidezko merkataritzako produktuak erakusteko eta saltzeko gune bat; taberna-jatetxe bat, modu kooperatiboan eta produktu agroekologikoetan (tokikoak eta sasoikoak) oinarrituta funtzionatzen duena.
- **Astra:** Gernikan kokatutako esperientzia hau ez da erakunde bultzadatik sortu, komunitatetik baizik. Bertan behera utzitako arma-fabrika zaharra da. 2005ean herriko kolektiboek okupatu zuten, eta herri-ekimenen nodo kondentsadore gisa berreskuratu zuten. Ondoren, Gernikako Udalak eraikina erosi eta zaharberritu zuen, Eusko Jaurlaritzaren “sortze-lantegiak” programaren laguntzarekin. Gaur egun, “sorkuntza artistikorako fabrika soziala” da. Kontzeptu horren barruan sartzen dira: arte eszenikoen eta kultur sorkuntzarako faktoria; ikus-entzunezkoen eta diseinuaren faktoria; arte plastikoen eta eskulanean faktoria; eta hitzaren faktoria. Astra Koordinadorak kudeatzen du.

Euskal Herritik kanpo ere badira arreta merezi duten esperientziak:

- **La Harinera:** Kudeaketa-eredua zehazteko urte eta erdiko parte-hartze prozesuaren ondoren, Zaragozako Udalak San Jose irin fabrika zaharraren egoitza berreskuratu zuen 2016an. Gaur egun kulturen komunitarioa da, eta parte-hartzaileen hitzetan, “parte-hartze aktiboa, ahalduntzea eta sormenaren bidez hiri-espazioa eraldatzea ditu helburu”. Zabalik dago edozein pertsona edo kolektibok jarduerak proposa ditzan, eta aldi berean, herritarrei zabalik dauden jarduerak eskaintzen dituzte. Kudeaketa-eredua da berritzaileena; hamabostean behin egiten den batzar baten bidez bideratzen da. Bertan biltzen dira udala (Zaragoza Kulturaleko teknikarien bidez ordezkatua), kokatuta dagoen auzoko sarea; eta espazioaren egunerokoan parte hartzen duten eragileak eta pertsonak (Llámalo H kolektiboan sartuak).

Lurraldean hedatu

ESSE sareak

ESSEko erakundeak osatzen dituzten hainbat sare daude. Euskal Herrian martxan daude, behintzat, [REAS-Euskadi](#) (Ekonomia alternatibo eta solidarioaren sarea), [REAS-Nafarroa](#), [Olatukoop](#) (ekonomia sozial eta eraldatzailearen sarea). Sare horiek elkarren arteko lotura sendoak ehuntzen dituzte. Adibidez, REAS-Euskadik eta Olatukoop [lankidetzaz hitzarmena](#) sinatu zuten 2018an, besteak beste, merkatu soziala zabaltzeko. Halaber, proiektu bateratuak sustatzen dituzte, hala nola [KoopFabrika Bilbo](#).

Zerbitzuak ematen dituzten erakundearen sareak osatu egin daitezke hornikuntza-ereduak eraldatu nahi dituzten kontsumitzaileen sareekin. Gehienak elikadurari buruzkoak dira. Hainbat lurralde-irismen izan ditzakete. Hala, Araban, [BioAlai](#) dago, 1.200 familiatik gora biltzen dituen. Bilbon [Labore](#) supermerkatu kooperatiboa dago. Eta Bilbo Zaharra auzoan errota, [Kidekoop](#) herri-ekimena dago. Badira beste sare batzuk, pertsonak edo bizikidetzaz unitateak taldekatu beharrean, erakundeak biltzen dituztenak (CKEak, ESSEko erakundeak), kontsumo kontzientea eta eraldatzailea sustatzeko lanean. Horien artean, aipatutako [Zentzuz Konsumitsu](#) (Gasteiz) eta [Saretuz](#) (Donostia) sareak daude.

Era berean, sare horiek merkatu sozial izenekoak jartzen dituzte martxan; haien definizioaren arabera, "ondasun eta zerbitzuen ekoizpen, banaketa eta kontsumorako sareak dira, ekonomia sozial eta solidarioko enpresa eta erakundeek osatutakoak, kontsumitzaileekin batera". Merkatu horiek lurraldeka funtzionatzen dute, hala, bat dago [Euskadin](#) eta beste bat [Nafarroan](#). Merkatu horiek ondasunak eta zerbitzuak eskaintzen dituzten erakundearen katalogoak eskaintzen dituzte, eta oro har, urtero antolatzen dituzte azoka sozialak, erakundeak eta herritarrak harremanetan jartzeko.

Erakunde publikoek sare, merkatu eta azoka horiek sustatzea (finantza-zioa, espazioak lagatzea, hedapenean eta ikusgarritasunean laguntzea, etab.) funtsezkoa da ESSEaren garapen autonomoa bultzatzeko.

**Kooperazio
Ekonomikorako
Lurralde Poloak**

MZLak elikaduraren dimentsioan zentratuta daude, eta ESSEko nodoak zerbitzu ez-materialen hornidurara eta kultura- eta arte-sorkuntzara bideratuta daude gehienbat. Hori dela eta, ESSEen nodo horiek eta MZLak hurbiltzeak aukera eman dezake hirugarren mailako sare sozioekonomikoa eta lehen mailakoa lortzeko, baita bitarteko artisau-industria sektore bat garatzeko ere.

Lotura hori garatu egin daiteke [Kooperazio Ekonomikorako Lurralde Polo](#) delakoen bidez. Polo horiek lurralde bereko ESSEko erakundeak beste gizarte-eragile batzuekin erlazionatzen dituzte (unibertsitateak, ikerketazentroak, bestelako erakundeak), ESSEaren balioetan oinarritutako tokiko garapeneko proiektu partekatua ezartzen saiatzeko. Adibide paradigmaticoa dugu Sud Aquitaineko PTCE (ikusi [hemen](#) eta [hemen](#)). Hasiera batean Bassin d'Emploi-ko Batzordeak sustatu eta koordinatu zuen polo hori. Oso industrializatuta dagoen eremu batean jarduten du, gazteen langabezia-arazoekin. Egoera horri heldu nahi dio, trantsizio energetikoaz arduratzeaz batera. Seignanxeko ESSko erakundeak biltzen ditu, eta aliantzak sortzen ditu beste eremu batzuetako ESSko erakundeekin (Biarno, Euskal Herria eta Landak), nahiz eta ez den hertsiki ESSra mugatzen (erakunde publikoak eta ohiko enpresa-sarea), eta horiek guztiak ESSerantz mobilizatzen ditu. Gai hauek jorratzen dira: elikagaien zirkuitu laburrak eta baserriko nekazaritza, finantza zirkuitu laburrak eta tokiko txanponak.

ESSEko merkatuan hornitu

ESSEa mapeatzea

ESSEa garatzeko, eskaintza egoteaz gain, eskaria ere egon behar da. MZLe-kin bezala, eskaera hainbat bidetatik etor daiteke: herritarrengandik oro har, ESSEko erakundeen arteko lankidetzatik eta erakunde publikoen hornikuntza beharretik.

ESSEtik hornitu ahal izateko, zer aukera dauden jakin behar da. Zeregin horretan lagungarriak dira mapak. Adibidez:

- [Pam a Pam](#), Katalunian, ESSEko erakunde batek (Setem) eta Katalunia-ko sareak (XES) bultzatuta, eta Bartzelonako Udalak eta Generalitateak finantzatuta.
- [Saretuz](#) kontsumo arduratsuko sareak Donostiarako egindako mapa, eta [Zentzuz Kontsumituk](#) Gasteizerako garatutako mapa.
- [Merkatu Soziala](#) Ekonomia Alternatibo eta Solidarioaren Sarearen ekimena da; beren hitzetan, “bultzatzen ditugun ekimen ekonomikoak elkarlotu nahi ditu, partekatzen ditugun balio horiekin bat datorren zirkuitu ekonomiko bakarrean”. Espainiako Estatuko lurralde osoan funtzionatzen du, autonomia-erkidegoen arabera antolatuta. Webgune orokorrean [mapa](#) bat dago. Lurralde batzuetako merkatu sozialak aplikazioak garatzen hasi dira. Dagoeneko eskuragarri dago [Madrilgo Merkatu Sozialekoa](#). Euskadin, REAS Euskadik eta Olatukoopek [Merkatu Soziala](#) aplikazioa egin dute.
- Mapez gain, hornikuntza-aukerei buruzko informazioa ematen duten webguneak ere badaude, adibidez, [Mecambio](#).
- Maila globalean, Socioeco izeneko ESSko baliabideen espazioak honako hauen kartografiak eskaintzen ditu:
 - [“Soluzioak”](#), hau da, ondasunak eta zerbitzuak eskaintzen dituzten ESSEko erakundeak
 - [“Politika publikoak”](#), ESSEen aldekoak.
 - [“Soluzio-kazetaritza”](#), komunikabide handien ordezkotako komunikabideak erakusten ditu.
 - [“Tresna pedagogikoak”](#) eta ESSEen inguruko prestakuntza

<p>Kontratazio publikoa</p>	<p>Erosketa eta kontratazio publiko arduratsuko tresna, lehenago aipatua, bereziki erabilgarria da ESSEa sustatzeko:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Kontratu erreserbatuak egin daitezke. Iruñeko Udalak 2018an gorde zuen Hemengoak proiektuari lotutako menuak aldatzeko laguntzaren lizitazioa, ekonomia sozialeko erakundeei zuzendua (udal haur eskolatan elikadura-sistema jasagarria sortu nahi zuen, tokiko ekoizleei zuzenean erositako produktu ekologiko, fresko, hurbileko eta sasoiako produktuetan oinarritua). MZLak eta ESSEa sustatzen dira hor. • Esleipen-klausuletan: la kontratazio sozialki eraginkorra den kontratazioari buruzko Valladolideko Udalaren 1/2018 Instrukzioaren helburua da udalaren kontratazio publikoa tresna gisa erabiltzea, ETEen gizarte-, ingurumen- eta sustapen-arloko udal-politikak bultzatzeko. Alderdi sozialak txertatzea ezartzen du, eskaintzak baloratzeko irizpide gisa. Hala, ezartzen du esleipen-irizpidetzat hartuko dela ekonomia sozialeko enpresak izatea (SSL kooperatibak, laneratze-enpresak eta enplegu-zenetro bereziak).
<p style="text-align: center;">Erakunde konprometitua</p>	
<p>Konpromiso politikoa</p>	<p>ESSEa matrize sozioekonomiko berri baten pieza nagusi gisa bultzatzeko, erakunde publikoek berriazko konpromisoa hartu behar dute. Konpromiso horren adibide da 2019an Ekonomia Sozial eta Solidarioaren aldeko Udalerrien Sarea izeneko elkarte eratu izana, Kataluniako hogeita hamaiak udalerririk osatua. Elkarte horrek lege-euskarria ematen dio 2015ean eraturako sareari, eta tokikoa den konpromisoa lurralde-eskalara iristea errazten du.</p>
<p>Estatuaren laguntza integrala tokikoari</p>	<p>Zenbait estatutan ESEak bultzada nabarmena jaso du. Esaterako, Frantzia mekanismo andana daude ESSEa laguntzeko:</p> <ul style="list-style-type: none"> • ESSE, ESSEen Eragileen Espazioa: ESSrako Goi Komisarioak sortutako webgune bat da, eta aldi berean, ESSEari laguntzeko erabilgarri dauden zerbitzuei eta mekanismoei buruzko informazioa zentralizatzeko gune bat izan nahi du (laguntza, finantzaketa, garapena, prestakuntza), bai eta ESSEko erakundeak beste eragile batzuekin elkartzeko gune bat ere. • Laguntza emateko tokiko gailuen sarea (DLA): Onura sozialeko erakundeak babesten dituzten erakunde publikoak dira (horien barruan ESSEko erakundeak koka ditzakegu). 2002an sortua, sareak departamentu-mailako 103 DLA ditu, eta eskualde-mailako 17 DLA, hainbat eskumenekin. Gainera, aditu-sare baten laguntza ere badago, sektoreka: kirolak, laneratzea, kultura, gizarte, osasuna, ingurumena eta finantzak.

**ESSEa maila
lokalean: tokiko
egiturak, plan
integralak**

ESSEa maila lokaletik ere babestu daiteke, hainbat tresnaren bidez:

- ESSEaren filosofiak barneratuta duten Tokiko Garapenerako Agentziak sortuz.
- ESSEa udal-organigraman sartuz, egitura egonkor gisa. Hemen garrantzitsua da aipatzea, adibidez, Bartzelonako Udalaren kasua; izan ere, [ESSaren Ordezkaritza bat sortu du](#), Ekonomia eta Lan Sailaren, Hiri Digitalaren eta Nazioarteko Harremanen mende dagoena. Ordezkaritza horrek zaintzen denborari eta ekonomiari buruzko politikak ere lantzen ditu, eta beraz, sinergiak sortzen ditu monetarik gabeko ekonomiaren eta irabazi-asmorik gabeko moneta-ekonomiaren artean, bizitzaren jasangarritasuna erdigunean jarriko duen ehun sozioekonomikoa lortzera bidean.

Egitura horiek martxan jarri ondoren (baita horiek gabe ere), plan integralak garatu daitezke; oro har, bi helburu nagusi dituzte:

- ESSEa sustatzea, eredu ekonomiko alternatibo gisa ikusarazteko, eta enplegu egonkorak sortzen dituzten proiektu berriak bultzatu eta laguntzea.
- ESSEa sendotzea: dauden proiektuak indartzuz.

Adibide gisa, aipagarria da Bartzelonako [ESSEa bultzatzeko plana 2016-2019](#). Urtebeteko lanaren emaitza da, eta ESSEko eragileek (bai eremu sozioenpresariala deitu ziotenek, bai esparru soziokomunitariokoek) eta ekonomia kolaboratibo prokomun delakoak parte hartu dute, baita udaleko eragileek eta herritarrek ere. Eta Nafarroan [2017-2020 Gizarte Ekonomia Bultzatzeko Plan Integrala](#) aipatu dezakegu.

Azkenik, modalitate alternatibo bat (aurrekoekin bateragarria) udal-erakundeak eta ESSEko eragileak elkarrekin koordinatuko diren proiektuak abiatzea da. Horren adibide bat [MARES](#), proiektua da, 2016 eta 2019 artean Madrilan garatua Urban Innovative Actions ekimen europarraren baitan. Bost sektore landu ditu (mugikortasuna, elikadura, birziklapena, energia eta zaintza) lau barrutitan. [Azken memoriak](#) jasotako ikaspenguztiak jasotzen ditu, baita garatutako tresnak ere.

Lankidetzta publiko-kooperatibo-komunitarioa

Bada galdera bat ESSEa sustatzeko edozein neurri zeharkatzen duena: esfera sozioekonomiko berri bat garatzea da, ala bestelako arrazionaltasun batek mugitutako esfera bat lortzeko apustua, dena eraldatzeko?

ESSEaren sustapena pentsatzeko orduan, argi izan behar da langileak eta, zentzu zabalagoan, herritar guztiak protagonista izango dituen nukleo gogor gisa pentsatu behar dela, tokiko sare sozioekonomikoa lortzeko bidean. Demokrazia ekonomiko hori lortzeko funtsezko urratsa da lankidetzta publiko-pribatuko paradigmatik (azken batean, irabazi-asmo pribatuak egitura ekonomikoan funtsezko lekua duela esan nahi du) hitzarmen publiko-kooperatibo eta komunitarioko paradigmara igarotzea da, non ESSEak rol nagusia jokatu duen arlo publikoaren eta komunitarioaren arteko zubi gisa. Hitzarmen horrek barne hartzen du "hiri-kooperatibismo berri" baterantz aurrera egitea, "hiriko ondasun komuneko kolektibizazioa eta hiri-produktibitatearen sektore estrategikoen birjabetze sozialaren alde" ([XES, 2014](#)).

Hori lortzera bidean, ESSEaren aldeko tokiko kontseiluak sor daitezke, ESSEko erakundeek, herritarren erakundeek (auzokoak, kulturalak, ekologistak, feministak) eta tokiko administrazioak osatuak. Kontseilu horiek honako ekintza-sekuentzia abiatu beharko lukete:

- ESSEaren tokiko diagnostikoa
- ESSEaren Gida Plana diseinatzea, aurrekontu-zuzkidurarekin, ebaluazio-mekanismoekin eta adierazle kuantitatibo eta kualitatiboekin.
- Urteroko memoria bat idaztea.
- Bitartekaritza-mekanismo bat eratzea, kudeaketa publiko-kooperatibo-komunitarioan sor daitezkeen gatazkei aurre egiteko.

4.6.5. neurria: Genero berdintasuna demokratizazioaren erdigunean

Demokratizazio-prozesua egituratzen duen dimentsio bat genero-berdintasunerako bidean aurrera egitea da. Desparekotasun horrek esparru ekonomikoa, soziala, politikoa eta kulturala zeharkatzen ditu, eta forma hartzen du maila indibidualean, pertsona bakoitzaren bizipenetan, eta baita maila kolektiboan ere, gauza guztien funtzionamenduan. Dimentsio anitzeko ikuspegia behar dugu, bai egoeraren analisia egitean, baita abian jarri beharreko neurri eta ekintzak gauzatzean ere.

Eskubideen, justiziaren eta erantzukizunaren ikuspegitik, administrazioen erantzukizuna da beren jardueraren guztietan berdintasuna bermatzea eta sustatzea; hori nola egin da galdera. Tresna politikoei dagokienez, estrategia duala deritzonak konbinatu egiten ditu berdintasun-ekintza espezifikoak eta ekintza instituzionalaren eremu osoan berdintasunari buruzko helburuen zeharkakotasuna. Azken horri *genero-mainstreaming* deritzo; hau da, politika publikoen bizi-ziklo osoan, maila guztietan, garapenerako tresna eta espazio guztietan, ideia bikoitza txertatzea: genero-desparekotasuna ez da soilik existitzen, baizik eta, hura ezaba-

tzeko berriarazko lana egiten ez bada, etengabe berreraiki eta sakonduko da; eta administrazioen betebeharra da horren gainean jardutea. Ideia hori araudi askotan jaso eta garatu da, eta material ugari sortu da nola aplikatu azaltzeko. Zenbait adibide topa ditzakegu [hemen](#). Ezarpenak argi-ilunak izan baditu ere, politika publikoetan txertatzeko elementu interesgarriak daude, eta horien lana da abiapuntuko markoa garatzea eta zabaltzea, testuinguru zehatzetara egokituta.

Funtsezkoa da berdintasun-agindu espezifikoak duten espazio instituzionalak egotea. Udalerriek berdintasun-arloak, -plangintza, -baliabideak eta langile propioak izan behar dituzte. Administrazio-organigramaren baitan zenbat eta garrantzi handiagoa izan, orduan eta eragiteko ahalmen handiagoa izango du. Era berean, udalerriak saretuta egon daitezke, elkar indartzeko eta ekintza koordinatuak gauzatzeko.

Baina, horrez gain, funtsezkoa da politika horien oinarriko ikuspegia. Gure ustez, politika horiek emakumeen autonomia eta ahalduntzea handitzeko balio behar dute; ikuspegi feminista eta eraldatzailea izan behar dute. Era berean, funtsezkoa da dimentsio intersektionala integratzea, genero-analisi eraldatzaile batetik abiatuz hainbat zapalkuntza-dimentsio (hala nola klase soziala, sexu-orientazioa, genero-identitatea, migrazio-estatusa, adina, arrazializazioa, landa- edo hiri-kokapena) barneratuko dituzten politikak definitzen saiatuz, gure lurraldeen benetako demokratizazioaren terminoetan aurrera egiteko. Horretarako, funtsezkoa da politika publikoak formulatzek orduan erreferentzia gisa hartzea eta loturak ezartzea emakumeen erakundeen eta erakunde feministen aldarrikapenekin.

Hemen, eraldatu nahi dugun errealitatea ezagutzeko beharrari buruzko neurriak jasotzen ditugu, diagnostikoak eta ebaluazioak eginez; araudi-esparru propioa izateko beharrari buruz, adibidez udal-ordenantzetan zehaztutakoa; eta udalerrien arteko sareak ehuntzeko beharrari buruz. Azkenik, emakumeei beraiei protagonismoa ematen dieten esperientzia batean jarriko dugu arreta; Euskadi aitzindaria izan da esperientzia horretan, eta potentzial bereziki handia du: ahalduntze-eskolak eta emakumeen etxeak. Jarraian aipatuko ditugun proiektuak zuzenean sortzen dira mugimendu feministarekiko loturatik, mugimendu feminista baita bultzatzaile nagusia, nahiz eta udal-baliabide bat den.

GENERO BERDINTASUNA DEMOKRATIZAZIOAREN ERDIGUNEAN

Errealitatea ezagutu, eraldatzeko

Desparekotasuna nonahi dago, baina hartzen dituen forma zehatzak aldakorra dira, eta espazio susmaezinak zeharkatu ditzake. Horregatik, funtsezkoa da une batez gelditzea, zein errealiteri helduko diogun ezagutzeko. Hala, udalerriek hainbat azterlan, datu eta informazio sektorial edo integral lor dezakete emakumeen bizitzari eta emakumeen eta gizonen desparekotasun-egoerari buruzko informazioa emateko. Beren ekintza publikoek genero-ikuspegitik izan dezaketen eragina neurtzen ere saiatu daitezke.

Bi ekintza mota hautatu ditugu, nahiz eta aukera sorta zabal dagoen.

- Genero-eraginaren aurretiazko ebaluazioak. Tresna honen bidez, asmoa da aztertzea arau batean proiektatutako jarduerak eragin positiboa edo kaltegarria izango duen, emakumeen eta gizonen arteko desparekotasuna ezabatzeke eta esku hartu nahi den testuinguru sozialean berdintasuna sustatzeko; bestalde, azterketa horren arabera, arau-proiektuan sartu beharko diren neurri zuzentzaileak eta aldaketak jasotzen dira, izan dezaketen eragin negatiboa neutralizatzeko edo, hala badagokio, eragin positiboa indartzeko. Adibidez, Donostiako Udalean tresna hau ezartzen saiatu dira. Ikusi [hemen](#) Berdintasunerako III. Planean jasotako gobernantza-ildoak.
- Diagnostikoak egitea, emakumeen egoera espezifikoak ezagutzeko. Adibidez, Elorrioko Udalak egindako [hau](#), landa-eremuko emakumeei buruzkoa.

Berezko arau-esparruak sortu

Udal- edo eskualde-ordenantza bat udal edo mankomunitate batek edo haren agintari gorenak ematen du (Alkatetzak edo Mankomunitateko Lehendakariak). EUELEk ordenantzak sustatzeko egindako *EAEko gizon eta emakumeen arteko berdintasun esparruko ordenantzen gidan* azaltzen den bezala, “kasu batzuetan, ordenantzak tokiko bizitzaren alderdi oso zehatzak arautzera bideratuko dira (zergak; hiri-hondakinak biltzea eta tratatzea; etxeko animaliak; terrazak bide publikoan instalatzea; saltzeko makinak instalatzea eta funtzionamenduan jartzea, edari eta elikagaien salmenta automatikorako, etab.); baina aldiz, beste batzuetan, ordenantza baten xede bihur daitezke inplikazio eta oihartzun sozial handiagoko beste arlo batzuk (euskararen erabileraren normalizazioa udalean bertan zein herri osoan; edo klima-aldaketaren aurkako borroka)” (Eudel 2012: 21).

Dokumentu horretan azaltzen denaren arabera, ordenantzen indarra “izaera arautzailean datza, baita komunikazio-dimentsioan ere —berdintasun arloko legeriaren edukia estrapolatuz—. Gainera, ordenantzek ere garrantzia handia dute marko-dokumentu gisa; izan ere, bertan finkatzen dira, denboran irauteko asmoz, tokiko berdintasun-politikarako oinarriak, hala nola printzipioak eta helburuak mugatzeko, tokiko egitura berdintasunean konfiguratzeke edo esku hartzeko ildo nagusiak definitzeko (...) Maila goreneko konpromisoa da, tokiko kudeaketaren arduranak, udal-gobernuak, berdintasuna lortzeko” (Eudel 2012: 22).

Testuinguru hurbilenetan, [Tolosa](#), Gipuzkoan, eta [Orkoien](#), Nafarroan, lehenengo herriak izan ziren Berdintasun Ordenantzak onartzen.

Udalerrien arteko saretzea

Sareen zeregina beti da garrantzitsua, baina bereziki garrantzitsua da udalerrri txikietan, zailtasunak dituztenean berdintasun-politikak garatzeko beharrezko baliabideak eta langileak bidertzeko.

Udalerrien arteko berdintasun-sareak indartzeko asmoa duten hainbat esperientzia daude. Esaterako, EUDElen berdintasun-arloa; hortik sortzen dira: [Berdinsarea](#) (Berdintasunaren aldeko eta Emakumeenganako Indarkeriaren aurkako Euskadiko Udalen Sarea), [Virginia Woolf BASQUESKOLA](#) (tokiko emakume hautetsien topagunea eta prestakuntza gunea), [Beldur Barik](#) programa (gazteen artean indarkeria sexista prebenitzeko) eta [Berdinbidean](#) (Udalerrri txikiei berdintasunaren arloko aholkularitza emateko zerbitzua). Zerbitzu honen helburua da udalerrri txikienek, baliabide eta langile faltagatik politika horiek bultzatzeko dituzten zailtasun espezifikoak erantzutea; laguntza-neurriak jasotzen dira, ekonomikoki laguntzeko, prestakuntzarako eta/edo lan-sareak sortzeko.

Esteka [honetan](#) EAEko berdintasunerako baliabideak biltzen dituen mapa bat ikus daiteke, honakoak barne hartzen dituena: emakumeen etxeak (jarraian aipatuko ditugu), emakumeen eta feministen elkarteak, berdintasunerako egitura publiko egonkorak eta Berdinbidean programan parte hartzen duten udalerrriak.

Emakumeentzako espazioak

2003an sortu ziren lehenengo ahalduntze eskola (Basauri) eta lehenengo emakumeen etxea (Ermua). Toki batzuetan, eskolatik abiatuta eratu da etxea (adibidez, Basaurin, Getxon eta Ondarroan). Beste leku batzuetan, lehenengo etxea eratu da, eta gero eskola (adibidez, Ermuan eta Arrasaten). Gaur egun, etxeak eta eskolak Euskadiko herri askotan daude, batez ere Bizkaian eta Gipuzkoan (kasu batzuetan, mankomunitateetan, Urola-Garaian adibidez); [hemen](#) zerrenda bat ikus daiteke. Arabako eredu ezberdina da: Gasteizen etxe eta eskola bana daude. Horrez gain, foru mailan funtzionatzen duen eskola bat dago, AFAk bultzatua eta kuadrilla eta tokiko erakundearen inplikazioarekin ([Laia eskola](#)). Nafarroako esperientzia ez da hain zabal, baina badago (adibidez, 2019an zabaldu berri den eskola bat eta etxe bat daude Iruñean, eta berdintasunerako eskola bat Eguesibarren). Beharrezkoa da existitzen diren esperientziak indartzea eta existitzen ez diren lekuetara hedatzea.

Ahalduntze eskolak

Udaletako berdintasun-arloek abian jarritako prestakuntza-programa erregularrak dira ahalduntze eskolak. Hausnarketarako eta elkar ikaskuntzarako espazio gisa funtzionatu nahi dute, ulertuta ikaskuntza bizitza osoan zehar martxan dagoen prozesua dela, eta emakumeen ahalduntzea sustatzeko azken helburuarekin. Ahalduntzea bilatzen da, indibidualetik kolektibora, eta pertsonaletik politikora. Funtsezko bi elementuk osatzen dutela ulertzen da: desparekotasun-egoeraz jabetzea eta, hortik abiatuta, parte-hartze soziopolitikorako aktibatzea. Eskolek, halaber, emakumeen arteko aliantzak bultzatzen dituzte.

Eskolek askotariko metodologia berritzaileak erabiltzen dituzte (ikastaroak, tailerrak, mintegiak, solasaldiak, hitzaldiak), emakumeen askotariko beharretara egokituta. Eduki-sorta zabala lantzen dute, guztiak (des) parekotasunaren eraikuntzarekin lotutakoak. [Pikaza Gorrotxategik \(2017\)](#) honako prestakuntza-ildoak identifikatzen ditu: feminismoak, emakumeen nortasuna eta subjektibotasuna, osasuna, kulturaren birdefinizioa, komunikazioa, elkartasuna eta munduko emakumeen arteko hartu-emana, autonomia indartzea, parte-hartze politikoa eta soziala. Azterlan berean ondorioztatzen da eskolak oso eraginkorrak direla ahalduntzea lortzeko, nahiz eta ahalduntzeak hartzen dituen formak aldatu egiten diren kontzientzia feministaren mailaren arabera, eta espaziora iristean emakumeek duten berdintasunaren arabera. Hala, emakume batzuek aldaketa pertsonaleko prozesuak bizi izan dituzte, batez ere (adibidez, komunitatean, lanean eta familian negoziatzeko gaitasuna handituz); beste batzuek, berriz, hausnarketa kolektiboan sakontzen dute, eta politikoki gehiago artikulatzen dira.

Azken urteotan, gero eta garrantzi handiagoa eman zaio kulturartekotasuna aitortu eta sustatzeko helburu gehigarria txertatzeari. Horrela, eskolak emakume migratu eta arrazializatuengana hurbiltzeaz gain, haiek dauzkaten prestakuntza-interesak eta ahalduntze-beharrak asetzea da asmoa, baita haien borroka-estrategiak jasotzeko eta hedatzeko espazio gisa baliatzea ere.

Ondo funtzionatzeko, funtsezkoa da pedagogia feministan oinarrituta egotea.

Emakumeen etxeak

Zer dira:

Emakumeen etxeek hainbat izen dituzte: Emakumeen Etxea, Plaza Feminista, Txoko Feminista, Etxe Lila, Andretxea... Ahalduzte eskolentzako espazio fisiko erregularra eskaintzen dute, baina ez hori bakarrik.

Espazio fisikoak dira (maiz, eraikin osoak), eta ahalduzte eskolak eta bestelako zerbitzu publikoak egon ohi dira bertan, emakumeentzako eta mugimendu feministarentzako topaguneen existentzia bermatzen dutenak. Oro har, dagokion berdintasun-erakundeko udal-langileen lantokiaren egoitza ere badira. Gainera, parte hartzeko bideak ezarri ohi dira, ikastaroak eta zerbitzuak definitzean, instituzioaz gain, emakumeek ere parte hartu dezaten. Normalean espazio ez mistoak izaten dira, nahiz eta mistoak diren jarduera batzuk ere antolatzen diren.

Sarritan, emakumeen etxeak, alde batetik, berdintasun-teknikarien konpromiso feministan errotuta daude, eta bestetik, sorreratik bertatik indar handia ematen dieten parte-hartze prozesuetan. Parte-hartze prozesu horietan, lurraldeko emakumeen behar zehatzak identifikatzen saiatzen dira, etxe bakoitza bertako berezitasunetara egokitu behar baita. Aurretiko esperientzietatik ikastea ere da asmoa, funtzionamendu zehatza hobeto erabaki ahal izateko. Euskal Herrian (eta kanpoan) martxan dauden etxeen aniztasunaren ondorioz, zaharreneen eta berrienen artean sinergia oso positiboak daude.

Etxeen helburuak eskolen helburuen osagarriak dira, baina zabaldu egiten dituzte:

- Ahalduztea bultzatzea: prestakuntzaren bidez egiten dute (horregatik egon ohi dira eskolak etxeetan), baina ez soilik horrela. Horrez gain, enfasi handiagoa jartzen zaio ahalduztearen dimensio kolektiboari, emakumeek beren proiektuak abiatzeko edo beren kolektiboetatik espazioa erabiltzeko
- Aliantzak sustatzea: espazio egonkor eta erabilgarria denez, eta askotariko jarduerak eta dinamizazioa dituen, esperientziak bateratzeko eta ezagutza kolektiboa eta foro politikoa eraikitzeko espazio gisa funtzionatzea sustatzen da, bai hausnarketarako eta proposamenerako, baita espazio publikoan eragiteko ere.
- Emakumei gela propioa izateko aukera ematen die, eta aukera ematen die beren lurraldean aurrez ongizatera egokitutako giroan bizitzeko.
- Erakundearen (berdintasun-teknikariak bertako langile baitira) eta emakumeen eta feministen mugimenduaren arteko topaleku egonkorra eskaintzen du.
- Arretarako zerbitzu instituzionalak (lege-aholkularitza, arreta psikologikoa) eta beste batzuk (liburutegiak, adibidez)

Kudeaketa-ereduak:

Etxeak kudeatzeko bi eredu identifikatu ditugu:

- Zuzeneko kudeaketa publikoa: hori da nagusi. Udal-erakundea arduratzen da kudeaketaz, baina hainbat kolektibok erabil dezakete espazioa (adibidez, giltza izan dezakete).
- Kogestioa: eredu hau ez da hain ohikoa, eta aparteko arreta merezi du. Gaur egun, Donostian eta Gasteizen funtzionatzen du. Donostiako ereduaz arituko gara, errotuago dagoelako (2010etik).

Eredu horren arabera (higiezina erabiltzeko Emakumeen Etxearekin sinatutako hitzarmenean formalki jaso, 2017), kudeaketa Udalak eta ad hoc sortutako elkarte batek partekatzen dute, etxeko emakume parte-hartzaile guztiei forma juridikoa emateko. Udalak goizetan izaten du lekua, ikastaroak antolatu eta zerbitzuak martxan jartzeko. Baditu ere berdintasun-arloko langileentzako bulegoak. Azpiegitura mantentzeko lanez eta gastu arruntez arduratzen da. Horrez gain, elkarteari erabilera lagatzeko aukera ematen dio, eta elkartea arduratzen da etxea irekita mantentzeaz, eta arratsaldez ikastaroak, tailerrak eta abar dinamizatzeari. Gainera, elkarrekin interesa duten kolektiboei lagatzen die erabilera. Udalak berak urtero ematen duen diru-laguntza bati esker, elkarrekin dinamizatzaile bat kontratatzen du; hari dagokio espazioa kudeatzea eta jarduera gehienak dinamizatzea. Koordinazio- eta lan-egitura egonkorra daude, udaleko langileak eta elkarteko emakumeak biltzen dituztenak (jarraipen-batzordea, etxearen urteroko batzarra, etab.).

Kogestioa modu oso positiboan baloratzen da, udalarekiko harremanak horizontalki ezartzeak ahalbidetzen duen ahaldundunetatik. Kudeaketa zuzena eta publikoa den kasuetan, funtsezkoa da udalaren konpromiso feminista bermatzea eta emakumeen mugimenduaren eta mugimendu feministaren autonomia errespetatzea.

4.7.6. neurria: Elikatzen duten lurrak

Elikagaien dimentsioa birlokalizatzea ere funtsezkoa da. Bizi garen lurrak elikatu egin behar gaitu. Horretarako, beharrezkoa da:

- Lurraren nekazaritza-erabilera sustatzea: tokiko elikadura-sistemak bermatzeko, beharrezkoa da nekazaritzarako, abeltzaintzarako eta basogintzarako erabiliko den lurra edukitzea. Horrek esan nahi du, lehenik eta behin, saihestu egin behar dela lurzorua erabilerak diruzko errentagarritasunaren arabera definitzea, eta tokiko beharretara hurbildu behar direla. Horien artean, elikadura ezinbesteko beharra da. Nekazaritzako elikagaien erabilerak irabazi gutxiagoko sortu ohi dute, baina guztiz ezinbestekoak dira lurraldean

errotutako bizitzaren jasangarritasunaren ikuspegitik: ez dago tokiko bizitzarik, ez bada-
go elikagaiak sortzeko lurrik. Lurra nekazaritzarako birbanatu behar da, horrelako proiektu
bat garatzeko interesa dutenen eskuetara iristen dela ziurtatuz. Horretarako, funtsez-
koa da belaunaldien arteko erreleboa eta emakumeek lurra eskuratzen dutela bermatzea.

- Tokiko bioaniztasuna bermatzea: lurrak ezin gaitu elikatu, ekosistema orekatuta ez bada-
go. Aipatu dugu biodibertsitatea *bizi-asegurua* dela; bioaniztasun horrek lurraldeari lotuta
egon behar du. Bertako flora eta faunan kondentsatzen da inguruneko baldintza berezie-
tara egokitzeko eta horiei erantzuteko historia ekosistemikoa. Tokiko bioaniztasunaren
babesa landa-eremuan zein hiri-eremuan eman behar da.
- Azkenik, lurrak elikatu gaitzan, ezinbestekoa da lurra bera elikatzea. Konpostajea fun-
tsezko estrategia da horretarako. Gainera, konpostajea tokikoa bada, bizi-zikloa ixteko
aukera ematen du, sortutako hondakinez in situ arduratzen baita. Eta lurra *elikatzeak* kal-
te ez egitea ere esan nahi du. Zentzu horretan, funtsezkoa da gure lurretatik nekazaritza
kimiko eta transgenikoak ezabatzea, eta agroekologikorako bidea egitea.

ELIKATZEN DUTEN LURRAK

Lurrarekin elikatu

Lur-bankuak

Tresna honek hainbat izen ditu: landa-lurren bitartekaritza zentroak, nekazaritza-lurren funtsak edo lur-bankuak. Funtsezko planteamendua da nekazaritza-bokazioa duten finak aprobetxatzen direla bermatzea, nekazaritza eta abeltzaintzako (edo, are, basogintzako) jarduera berraktibatuta eta, hala badagokio, egon daitezkeen abandonu-egoerak saihestu eta jasangarritasun ekologikoa ziurtatuta (adibidez, abandonuari lotutako sute-arriskua saihestuz).

Euskal Herrian, ekimen nagusiak [Bizkaiko](#) (2010) eta [Gipuzkoako](#) (2013) Foru Aldundietatik datoz. Funts bana jarri zuten abian, Asturiasko bi hamarkadetakoa esperientziari jarraituz, eta esperientzia hori, gerora, Galizian eguneratu zen. Bi kasuetan, titulartasun pribatuko edo publikoko nekazaritza-lurren poltsak sortu dira, nekazaritza-proiektu bat garatu nahi duten pertsonen artean banatzeko. Lurrak denbora jakin baterako ematen dira (erabileraren arabera), normalean alokairu-erregimenean (edo, lur publikoen kasu batzuetan, emakida-erregimenean). Titulartasun pribatuko lurren kasuan, alokairuaren prezioan bitartekari lanak egitera mugatu daitezke udalerrriak, eskaintza eta eskaria lurraren erabilerari buruzko parametro batzuekin lotuz.

Funts horiek ondo funtzionatzeko oztopo nagusia ez da eskaera falta, lurzorua mugitzeko zailtasuna baizik. Hirigintza-presio handia duten lurraldeak badira, irabazi-asmoko itxaropena nagusitzen da, eta lurzoru pribatu gutxi jartzen dira eskuragarri. Kasu horietan, honakoa nabarmendu behar da:

- Poltsetan dagoen lurzoru publikoa handitzea: publikoaz gain, lursaila erosi daiteke. Baliabide faltak bidea zaildu badezake ere, ez da ahaztu behar daukan efektu katalizatzailea.
- Lurzoru pribatua mugiaraztea, gutxiegi erabiltzeagatik: lurzorua funtsaren esku jartzen bada, abandonuagatik etor daitezkeen zigorrak saihesten dira.
- Martxan jartzeko azalera gutxiago behar duten erabilerak bilatuz, hala nola hegazti-hazkuntza edo fruta-hazkuntza.

Arazoa hirigintza-presioaren ordean abandonua den lekuetan, laguntzeko modua azpiegiturak berreskuratzean datza, batez ere (partzelak ustiatzea ahalbidetzen duten iturrietatik, partzeletara iristea bermatzeko bide-sarera). Horrelako inguruneetan [Matarranya](#) (lehen fasea 2012an eta bigarrena 2015ean) eta [El Bierzoko](#) lur-bankuek funtzionatzen dute.

Azkenik, diputazioek lurzoruak zuzenean kudeatzeaz gain, beste aukera bat da aldundiek bateratzea udalerriek eskura jarritako lurrak. Hori da Valentzian gertatzen dena, Aldundiak [plataforma digital](#) bat garatu baitu udal bankuak kudeatzeko.

Hiri-baratzeak

Landa-eremuak ez dira tokiko biztanleei jaten eman diezaieketen bakarrak. Halaber, elikadura-erabilerak integra daitezke hiri-guneetan eta hiri-inguruetan. Esperientzia ugari daude “hiri-baratze” deitzen dugunaren inguruan. Helburu hirukoitza izan ohi dute:

- Ingurumen-arloko sentsibilizazioa eta hezkuntza.
- Sozializatzeko eta aisialdi aktiborako espazio bat eskaintzea.
- Elikagai osasungarrien ekoizpena sustatzea, autokontsumorako (ez hainbeste salerosketarako, nekazaritza-lurren bankuen kasuan bezala).

Esperientzia horietan, udalerriek lursail publikoa lagatzen diete landu nahi dituzten norbanako edo kolektiboek:

- Gero eta gehiago, baldintza gisa jartzen da praktika ekologikoak bermatzea. Zarautzek, Euskal Herriko esperientzia aitzindarietako bat izan zenak, 2009an jarri zituen martxan halako baratzeak, eta gaur egun ekologikoa pasatzen saiatzen ari da.
- Batzuetan, prekaritate egoera berezian dauden kolektiboak lehenesten dira, Laudioko [Ellacuriko udal-baratzeetan](#) egiten den bezala (2013tik martxan), bazterkeria arriskuan dauden pertsonekin, adineko langabeekin eta desgaitasuna dutenekin.
- Batzuetan, lagapena ez da udalaren ekimenez sortzen, herritarren ekimenez baizik. Kasu horretan, erakundearen lana herritarren eskariari erantzutea da. Prozesu horri esker sortu zen Zabalhana auzoko hiri-baratzearen proiektua. Lau mila metro koadro baino gehiagoko udal-jabetzako lursail bat hartzen du, eta [Zabalortu Elkartek](#) kudeatzen du gaur egun.
- Espazio publikoa pertsoneri edo kolektiboek lagatzeaz gain, baratzeak dinamizatu daitezke, zentro publikoen jardueraren baitan. Horixe egiten dute [Gasteizen](#). Bertan, 2011n, Kiribilore elkarteak gaur egun sare dibertsifikatu bihurtu dena jarri zuen martxan: banakako pertsonen kudeatutako baratzeak eta kolektiboek kudeatutako beste batzuk. Gizarte-etxeetan, ikastetxeetan, adinekoen zentroetan eta espazio soziokulturaletan eta unibertsitateko espazioetan kudeatutako baratzeak dira. Eta baratze horiek guztiak ekologikoak dira. Batzuk Eraztun Berdearen zati dira; gero hitz egingo dugu horri buruz.

Baina ekimen horiek abiatzeaz harago, funtsezkoa da hiri-plangintzako elementuak integratzea hirietako elikadura-politiketan, horrela, hiriko eta hiri-inguruko nekazaritza landa-nekazaritzaren osagarri dela bermatuz, tokiko elikadura-sistemak eraikitzeko bidean:

- [Zaragozako Elikadura Jasangarri eta Osasungarrirako Estrategiak](#) ekin-tza bat jasotzen du, “lurraldearen erabileraren plangintza holistiko eta integratu bat orientatzeko ikuspegi ekosistemikoa hartzeari” buruzkoa.
- Horretaz harago, hiriko elikadura-sistemen plangintzan eta [Hiri Elikadura Agenda](#) baterantz aurrera egitean pentsatzen hasi behar da.

Lurra elikatu	
Hiri-azpiegitura berdea	<p>Azpiegitura berdearen kontzeptua lausoa da, baita polemikoa ere. Planifikatuta dagoen sare gisa uler dezakegu, non kalitate handiko eremu (erdi)naturalak eta beste ingurumen-elementu batzuk konbinatzen diren, zerbitzu ekosistemikoak emateko eta bioaniztasuna babesteko. Hiri-eremuan azpiegitura horrekiko dagoen konpromisoaren adibide gisa, honakoak aipa ditzakegu:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Gasteizko Eratzun Berdea. Hiria eta ingurunea lotzen ditu, parke-sare baten bidez. Gaur egun, 1990eko hamarkadaren hasieran hasitako ekologia eta paisaia lehengoratzeko lan baten emaitza da. • Bartzelonako Zuhaitzien Plan Zuzentzailea 2017-2037. Zuhaitziak babestu nahi ditu ingurumenerako dituzten onurengatik (airearen kalitatea hobetzea, zaratak murriztea, erregulazio mikroklimatiko, euri-ura atxikitzea, animalien bioaniztasuna areagotzea, berdeguneen arteko konektorea), osasunagatik, gizarzteagatik (elkartzeko espazioak ematen ditu) eta hiri-paisaiari dagokionez.
Tokiko bioaniztasuna babestea	<p>Tokiko bioaniztasuna hainbat arlotan babestu daiteke:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Landa-eremua: bioaniztasunerako funtsezko alderdi bat azalera arboladunak dira, eta horien gainean udal-eskumenak daude (batzuetan aldundiei lagatakoak) ondare-mendiei, onura publikokoei eta erabilera librekoiei dago-kienz. Zuhaitzen zati handi bat espezie aloktonoak dira. Baso autoktonoak berreskuratu behar dira, eta aurrera egin behar da Naturatik Hurbileko Baso Kudeaketarantz, Sagarrek elkarrekin Bizkaiko lur publikoetarako planteatzen duenaren ildotik. • Hirigunea: hirietan ere bioaniztasuna babestu daiteke, bai parke eta lorategiei dagokionez, bai hiri-zuhaitzietan dagokionez. Babes horren adibide da biodibertsitatea kontserbatzeko urmaelen kudeaketa naturalizatuaren proiektua, Bartzelonan ezarri dena hiri-azpiegitura berdea sustatzeko programaren baitan (hiri-sistema berde baterantz aurrera egitea du helburu, bi tresnaren bidez: batetik, hiri-inguruko naturarekin bat egingo duten hiri-korridore berdeak ezartzea, eta bestetik, aukera-espazioak identifikatu eta birnaturalizatzeari, hala nola orubeak, estalkiak, balkoiak eta abar). <p>Azkenik, gaur egungo eta etorkizuneko tokiko bioaniztasuna bermatzeko funtsezko elementua hazi-bankuak dira.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Haziera programa, aldi berean, hazien katalogo bat da, haziak trukatzeko gune bat, eta landutako bioaniztasunarekiko interesa dutenen eta nekazaritza eskala txikian mantentzeko interesa dutenen arteko elkargunea eta prestakuntzarako lekua. Haziera Donostiako Udalak jarri zuen martxan, Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarekin. • Tokiko erakundeek tokiko barietateak berreskuratzeko lan egiten duten ekimenak babestu ditzakete, hala nola Euskal Herriko Hazien Sarea (1996tik EAEn) eta Nafarroako Hazien Sarea.

Konpostajea

Gaur egun, ez da beharrezkoa hiri-hondakin solidoak banatuta biltzearen garrantzia argudiatzea. Era berean, gero eta gutxiago argudiatu behar da organikoa konpostajerako biltzeak duen garrantzia, kutsatzea saihesteko ez ezik lurra elikatzeko funtsezko tresna baita. Horretarako, konpostajea deszentralizatua izan behar da. Era berean, mota askotakoa izan daiteke:

- Etxekoa: etxean bertan egiten denean
- Komunitarioa: hainbat erabiltzailerentzat irisgarria den espazio publiko batean (eskolak, lorategiak, bizilagunak) egiten denean.
- Hondakin organikoaren bilketa bereizia ere egin daiteke, eta ahal bada udaletako instalazioetan konpostatu, prozesuaren kokapena ziurtatzeko.
- Nekazaritzako konpostajea, tokiko nekazariak bilketan eta tratamenduan integratuz.
- Hurbiltasun-irizpidea errespetatzen duen beste edozein eskema (gehienez ere 30 km, bilketatik konpostaje-instalaziora).

Esperientzia berritzaile asko daude. Horietako asko [Composta en Red](#) toki-erakundearen sarearen urteko mintegien aurkezpenetan kontsulta daitezke (AFAk, Elburgo-Burgetak, Hernanik, Iruñerriko Mankomunitateak eta Nafarroako hiri-hondakinak tratatzeko Partzuergoak osatzen dute). Horien artean, aipatzekoak dira:

- Iruñeako udalak [proiektu piloto](#) bat jarri du martxan, haur eskoletako hondakin organikoak kudeatzeko egungo eredua aldatzeko (bosgarren edukiontzi batean biltzen dira, eta biogasa bihurtzeko planta batera eramaten dira). Bi eskolatan martxan, biohondakinak ekonomia sozialeko erakunde batek (Elkarkide) jasotzen ditu eta konpostaje komunitarioko planta batera eramaten dira, parke batean. Bertan, lorezaintzako inausketaren hondarrekin konbinatzen da.
- [Larrabetzu](#): 2014az geroztik, landa-eremuetan tratamendu deszentralizatua emateko [Austriako eredua](#) ezartzen ari dira, [Bertokoa indartuz](#) proiektu pilotoarene bidez. Alde batetik, etxebizitzek, janari-dendek eta tabernek/jatetxeek parte hartu dute (horietako bat, ekoizle handia da: hiru Michelin izarreko jatetxea) eta bestetik, baserritarrek. Azken horiek lehenengoan bio-hondakinak jasotzen dituzte eta lursailletako tratamendu-puntuetara eramaten dituzte, eta lortutako konpostaz gain zerbitzuaren ordainketa ere jasotzen dute.
- [Errenteriako](#) Udalak zaborren tasaren hobaria ezarri zuen 2016an, materia organikoa arduraz birziklatzen duten etxeetarako (%25 komunitateko edo etxeko konpostajea egiteagatik; %5 bosgarren edukiontziaren bidez materia organikoaren gaikako bilketan parte hartzeagatik).

Bizitzeko lur biziak

Zeberioaren kasua eta [Nekazalgunea](#) proiektua adibide ona dira ikusteko lur biziek nola eman dezaketen bizitzeko aukera. Aldi berean, parte-hartze prozesuek dauzkaten onuren adibide ere bada, administrazioak baino begirada osoagoa izaten baitute. Kasu honen hasierako motibazioa lehen sektorea dinamizatzea zen, bizimodu jasangarria, elikadura osasungarria eta ingurune bizia eta dinamikoa sustatzearekin lotuta. Hausnarketa prozesu parte-hartzailearen ondorioz, Nekazalgunea proiektua abiatu zen. Proiektu horrek hiru hanka nagusi zituen: lurra, etxebizitza eta eraldaketarako eta trukerako espazio bat. Patronatuarekin negoziatu zen bertako lur batzuk lagatzea agintaldiko kontratu-eredu baten bidez (udala arduratzen da lurak kudeatzeaz, eta hamar urtez ondo erabiltzen direla bermatzeaz). Horrela, udal eraikin bat prestatu zen, Ermita-barri, apartamentuak hartzeko (ekoizpen-jarduerari ekiten ziotenentzat), baita espazio kolektibo bat ere, elikagaiak ikuspegi agroekologiko eta kolektibo batetik eraldatzeko proiektu bat hartzen duena, [Maskilu Kontserbak](#). Prozesu integrala da, dimentsio horiez gain, udalerraren memoria historikoa eraikitzeko, sareak eta lan komunitarioa sortzeko, lehen sektorearen eta turismoaren arteko loturak aztertzeko, Etnogune bezalako proposamenekin, etab.

4.8. 7. neurria: Zaintzarako espazioak

Denon arteko erantzunkidetasuna eraiki ahal izateko, beharrezkoa da hori ahalbidetuko duen espazio fisiko bat, harremani materialtasuna emango dien lurralde bat. Espazio honek gure etxebizitzak eta bizi garen hiri eta herriak hartzen ditu.

- Zaintzaren arkitekturak⁵: etxebizitza jabetza pribatu gisa ulertzeari utzi behar diogu. Izan ere, bizigarritasunerako ez ezik, espekulaziorako ere erabiltzen da, eta bizitza modu isolatuan garatzen da. Egoera horren aurrean, etxebizitza kolaboratiboaren alde egiten da (cohousing ere esaten zaie). Etxebizitza horiek aukera ematen dute etxebizitzarekin jabetza pribatuaz bestelako harreman bat eraikitzeko; alde publikoaren eta pribatuaren arteko banaketa zorrotza hausteko; eta erabilera-balioa sustatzeko, espekulatiboaren kaltetan. Beste etxebizitza batzuek zaintza kolektiboarekin konprometitua goak dauden beste bizi-eredu batzuk ahalbidetzen dituzte. Formula horiek hainbat bidetatik sustatu daitezke, eta ezinbestekoa da hiri-berrikuntzarako planetan txertatzea. Dokumentu honetan titulartasun publikoko eta kooperatiboko etxebizitzak aztertuko ditugu. Lehenak aldi baterakoak izaten dira, eta bigarrenak, berriz, denboran irauteko pentsatzen dira. Baina [Mogollon eta Escudero \(2019\)](#) esandakoari jarraiki, ereduaren aniztasuna askoz handiagoa da, eta honela bereizi daiteke:
 - “Arkitektura gogorra”: hau da, eraikina (bioeraikuntzakoa, egokitua, etab.) eta haren espazioak (pribatuak eta partekatutak, barnekoak eta kanpokoak); formula juridikoa (publikoa, irabazi-asmorik gabeko elkartea, kooperatiba, etab.); eta egitura ekonomiko kolektiboa (jabetza pribatua, publikoa, kooperatiboa, etab.).

⁵ Izena hemendik hartu dugu: [Mogollon eta Escudero \(2019\)](#).

- “Arkitektura biguna”: hau da, bertan bizi diren sistema sozialak, ezartzen diren harremanak eta praktikak: edonorentzat zabalik dagoen edo kide izateko irizpideak definitzen dituzten (belaunaldi anitzekoak edo adin-taldeka; soilik emakumeentzat edo mistoak; LGTBI kolektiboko adinekoentzat); parte-hartze handiagoa edo txikiagoa duten, eta abar
- Zaintzaren hirigintza⁶: hirigintza publiko eta komunitarioaren alde egin nahi da, birbanaketarako (pertsona guztiek lekua izan dezaten) eta zaintzarako espazio gisa funtziona dezan. Zaintzaren hiriek edo herriek espazio malguak eskaintzen dituzte, askotariko pertsonen premietara egokitzen direnak (eta ez alderantziz, pertsonak espazioetara egokituz); pertsonak seguru sentitzen dira espazioetan; pertsonen arteko harremanak eta parte-hartze soziopolitikoak ahalbidetzen dituzten espazio hornituak (kanpokoak edo eguraldi txarraz babesten dutenak) eskaintzen dituzte; eta zaintza-lanak eta kudeaketak egiteko euskarri fisikoa bermatzen dute. Segurtasuna elementu garrantzitsua da. Segurtasun falta ezberdin hautematen da hainbat pertsona eta kolektiboren arabera. Ez dago soilik krimenaren menpe, bestelako indarkerien (kaleko jazarpena, adibidez) eta segurtasun faltaren beste elementu batzuen (abiadura handiko zirkulazioa, adibidez) menpe baizik. Segurtasuna lortzeko, honakoak bermatu behar dira: ingurune seinalizatutakoak (non gauden eta nora goazen jakitea), ikusgarritasuna (zuk zeuk ikustea eta ikusia izatea), bizi-ingurunea (entzuteko eta entzuna izateko aukera ematen diguten askotariko pertsonak egotea), zaintza formala eta laguntza eskuratzeko erraztasuna, ingurune hornitua (ingurune garbia eta abegikorra planifikatzea eta mantentzea) eta komunitate-ingurunea (taldean parte hartzea eta jardutea).

6 Hirigintza feministaren planteamenduak oinarri hartuta hartu genuen izen hori. Col.lectiu Punt 6 delakoak [“hiri zaintzailea”](#) kontzeptua darabil. Hemen “zaintzaren hirigintza” izena erabiltzen dugu, zaintzaren arkitekturekiko koherentziari eusteko, eta herriak proposamenean sartzen ez direla ez emateko.

ZAINZARAKO ESPAZIOAK

Zaintzaren arkitekturak

Etxebizitza kolaboratibo autogestio-natua, erabilera-lagapenean

Etxebizitza-modalitate hori da azken urteotan bultzada handiena hartzen ari dena. Higiezinaren jabetza kolektiboa da (kooperatibari dagokio) eta bizilagunak kooperatibako bazkideak dira. Bertan bizi daitezke bizitza osorako, baina ezin dute ez saldu ezta alokatu ere (beraz, ez dago espekulatzeko aukerarik). Kooperatibako bazkideek sustatzen dute proiektua, eta bizitza ematen diote, bai diseinu- eta plangintza-fasean (nahiz eta laguntza tekniko-a izan), baita gerora ere, etxeko eguneroko bizitzan, komunitate-bizitzari balio handia ematen baitzaio.

[Hemen](#) Espainiako Estatuan dauden ekimenak mapeatu dituzte. Ikus daitekeenez, Euskal Herrian hainbat ekimen daude martxan. Adibidez: [Ara-baska](#) (belaunaldi artekoa, Donostian), [Egunsentia](#) (adinekoentzat, Bilbon), [Bizikooopon](#) (belaunaldi artekoa, Gasteizen) eta [Etxekonak](#) (adinekoentzat, Iruñean). Halaber, landa-eremuan hainbat proiektu daude martxan; adibidez, [Ametxe](#) kooperatiba baserri bat berreraikitzen ari da Gordexolan; eta Artiedan [ArterraBizimodu](#) proiektua dago. [Euskal Herriko Cohousing Elkarte](#) bat ere badago, Ametsak Sortzen. Proiektu horiek izan ohi duten zailtasun nagusietako bat laguntza publikoen falta da; laguntza publikorik gabe, batzuetan ezinezkoa da horiek abiatzea. Hori hainbat modutan saihestu daiteke:

- *Azalera-eskubidea* izanik: hau da, titulartasun publikoko lurzoruan erai-kitzeko eskubidea lagata, 75 urtera arte (hala baimentzen du Lurzorua-ren Euskal Legearen 78. artikulua EAEn). Horixe egin du Bartzelonako Udalak [La Borda](#) kooperatibari lurzorua lagatzean. Lagapen horri esker, proiektuen kostua asko murrizten da, eta erosteko ahalmen txikiagoa duten pertsoneri zabaltzen zaie. Antzeko proiektu bat ere martxan dago, Madrilgo [Entrepatis](#), baina ez du halako laguntza publikorik izan, eta beraz, ez da hain eskuragarria.
- Babes publikoko etxebizitzaren sustapenaren zati bat irabazi-asmorik gabeko kooperatibentzat gordetzea, erabilera lagatzeko araubidean. Formula hori darabilte Danimarkan (adibidez, Tinggården-en edo Munksøgård-en).
- Halako ekimenak abiarazi nahi dituzten irabazi-asmorik gabeko elkar-teei laguntza teknikoa emanez.
- Adineko pertsoneri zuzendutako etxebizitza kolaboratiboko ekimenak direnean, babestu egin daitezke legez onartuta eta zerbitzu soziosanitarioak emateko izendatuta, Mendekotasun Legearen *Autonomiaren Aldeko eta Mendekotasunari Arreta Eskaintzeko Sistemaren* baitan. Horixe aldarrikatzen du [Trabensolsek](#), Torremocha del Jaramako "adinekoentzako Bizikidetzeta, Laguntza eta Zerbitzuen Gizarte Zentro"-ak.

Etxebizitza kolaboratibo publikoa

Kooperatiben ekimenei laguntzeaz gain, tokiko erakundeek etxebizitza kolaboratiboen proiektu propioak ere garatu ditzakete. Modalitate hori egokia da bizitzako edozein unetan, baina garrantzi berezia hartzen du bizitzako bi unetan: gazteentzako emantzipazio-formula gisa, sare sozial sendoa eraikitzea ahalbidetzen baitu; eta zaintza kolektiboak bermatzeko modu gisa pertsonak zahartu ahala, kanpoko zaintzekiko mendekotasuna murrizteko eta hain intentsiboak ez diren zaintza partekatuko formulak abian jartzeko. Horrelako ekimenen adibideak:

- [Txirikorda](#), Usurbilen: etxebizitza komunitarioak eraikitzeko proiektua, gazteentzat (18-30 urte, gehienez ere bost urtez) eta 60 urtetik gorakoentzat (iraupen-mugarik gabe, mendekotasun-egoeran ez dauden bitartean). Udalak sustatua eta Hiritik kooperatibak koordinatua, bere horretan oso baliotsua den parte-hartze prozesu baten bidez eraikitzen ari da. Hamasei etxebizitza eraikitzea aurreikusten da, espazio pribatuak eta partekatutakoak izango dituztenak. Gazteek diru-sarreraren %15 ordainduko dute (gutxienez 90€), eta adinekoek, berriz, pentsioaren arabera. Garapen-fasean dago oraingoz.
- [Erreterria](#): kasu honetan, gazteentzako (18-30 urte) etxebizitza komunitarioko proiektua da. Gehienez ere hiru urtez egon daitezke bertan bizitzeko. Eremu indibidualak eta komunak ditu baita ere. Egina zegoen eraikin bat eraberritu dute. Usurbilen proposatutako ekarpen ekonomiko berdinaz gain, aurreikusten dute bizilagunek proiektu kolektiboari eta bizitza komunitarioari eskainitako denborari dagokionez ere ekarpenak egitea. Dagoeneko martxan dago.

Aipatzekoa den beste esperientzia bat [Orendaingo Kale baserriaren](#) eraberritzea da. Jabetza publikoaren, partekatuaren edo lagatutakoaren aldeko apustua ez bada ere, ezta bizitza komunitarioko proposamena ere, aipatutako hainbat elementu jasotzen ditu. Parte-hartze prozesu baten bidez, funtsezko hiru arazo hauteman ziren: baserri hutsak zeudela, etxebizitza duin eta irisgarriak lortzeko zailtasunak zeudela, eta herria despulatuta zegoela. Hiru arazo horiei erantzuteko, proiektu bat jarri da abian, eta horren bidez, hutsik dagoen eta udalarena den baserri zahar bat eraberritzen ari dira, bost etxebizitza jartzeko. Horietako lauren jabetza eraberritzea finantzatuko duten eta bertan biziko diren bizilagunei lagatzen zaie. Udalak bostgarren etxebizitza baten jabetza atxikitzen du. [Birgaitze-prozesua](#) udalaren laguntzarekin egiten ari dira, eta oreka bilatzen ari dira, batetik eskuragarriagoa izateko kostua minimizatzen, eta bestetik kalitatezkoa izango den eta ingurumenaren aldetik jasagarria den etxebizitza bat bermatzearen artean.

Auzoak eta herriak berreskuratzea

Etxebizitza kolaboratiboak abian jartzeaz gain, lurralde zabalagoa berreskuratzeke lankidetzeta-prozesu bat jar daiteke abian. Eta hori tokiko erakundeek lagundu dezakete. Bi adibide aztertuko ditugu:

- **Errekaleor:** Gasteizko kanpoaldean dagoen langile-auzoa da. 32 atari ditu (bakoitzak sei etxebizitza), baita zenbait azpiegitura eta espazio ere (gizarte etxea, gaztetxea, zinema, baratzea, plazak). Auzo honek despopulatzeko prozesua jasan zuen eta eraiketa planifikatuta zegoen. 2010eko hamarkadaren erdialdean ia hutsik zegoen, baina zutik. Orduan, gazte talde batek bertan bizitzea erabaki zuen, ez soilik etxebizitza proiektu gisa, baizik eta auzo-sare konprometitua eraikitzeko [proiektu](#) gisa ere. Autoaskitasun energetikoa ere bilatzen du, baita trukerako espazio ezmerkantilizatuak ezartzea ere. Autogestio esperientzia bat da, espazioa biziberritzen duena. Laguntza publiko nagusia da funtzionamendu autonomoa ahalbidetuko duen azpiegitura publikoa bermatzea (argiteria, saneamendua, etab.).
- **Errekazar-Zorokiain:** Errekazar Auzo Elkarateak Zorokiain berreskuratzea nahi du, hutsik dagoen herri txiki bat. Bederatzi etxebizitza eraiki edo berreraiki nahi dituzte, eta horrela, herritarrentzako gune komunitario bat lortu. Jasangarritasun ekologikoaren (bioeraikuntza eta autoaskitasun energetikoa bilatzen dira) eta auzolanaren aldeko apustua ere egin dute. Eliza kulturagune komunitario gisa berreraiki dute. Nahiz eta proiektua elkarteak sortu eta zuzendu duen, garrantzitsua da erakundeen babesa. Untzitabarreko Udalak bere gain hartu du eraberritzearen kudeaketa, eta Nafarroako Gobernuak finantzatzea lortu du.

Zaintzaren hirigintza

Genero-ikuspegia duten hiri-auditoretzak

[Genero Ikuspegia duen Hiri-Kalitateko Auditoretza](#) (ACUG) Col.lectiu Punt 6 zentroak egindako hiri-ebaluaziorako tresna bat da. Auzoetan aplikatzeko diseinatuta dago, eta zaintza-auzoak diren frogatzeko balio du. Auzo osoa eta/edo harremanetarako espazioren bat (non pertsonak egunero erlazionatzen diren) eta/edo eguneroko ekipamenduren bat (eguneroko bizitzarako ezinbestekoak) balora dezake. Lehenbizi, hiri-diagnostiko parte-hartzaile bat egitea proposatzen du. Horren ondoren, hirigunearen bost irizpideren inguruan ebaluatzea proposatzen du (zein neurritan bermatzen diren hurbiltasuna, aniztasuna, autonomia, bizitasuna eta ordezkartasuna). Azkenik, hiri-kudeaketa baloratzen da hiru elementuren arabera: eskala aniztasuna (sektoretan banatzen den), diziplinartekotasuna (arkitekturatik bakarrik lantzen den) eta parte-hartzea.

Tresna hori hainbat lekutan aplikatu da. Esate baterako, Congost auzoan (Granollers), Askatasunaren Plazaren birgaitzea ikuskatzeko balio izan zuen, eta honako aholku hauek eman zituen: komun publikoak eta euritik babesteko zein itzala emateko elementuak txertatzea, aniztasuna areagotzeko; oinezkoentzako espazioak zabaltzea autonomia sustatzeko; eta tokiko merkataritza, beheko solairuen erabilera eta asteroko jarduerak sustatzea, bizitasun handiagoa emateko.

Espazioetako segurtasun falta mapeatzea

Segurtasun faltaren pertzepzioa desparekotasun-ardatzen arabera aldatzen dela ulertuta, mapa horien bidez, emakumeak (normalean, gauez) segurtasunik gabe sentitzen diren espazioak identifikatu nahi dira, hiriko espazioen plangintzan konponbideak bilatzeko. Adibidez, Basaurin 2002an egindako mapa 2014ko Hiri Antolamenduko Plan Orokorrarekin berrartu da. Mapa horiek egiteko parte-hartze prozesuak behar dira nahitaez, eta erakundeak bultzatzaileak izan daitezke. Halako mapak egin izan dituzte Iruñean (hiri debekatuaren mapa), Zizurren, Barañainen, Donostian (puntu kritikoen mapa) eta Bilbon (hiri debekatuaren mapa). Emakume-talde jakin batzuen ikuspegitik egin daitezke. Hala, Basaurin, emakume gazteen ikuspegiaren oinarritu ziren.

Espazio publikoak herritarren espazio gisa

Espazio publikoak laga daitezke herritarren guneen sarea elikatzeko. Espazio horiek ekimen kolektiboak dira, harreman kooperatiboak eta solidarioak sustatzen dituztenak. Udal-erakundeek laguntza eman diezaiekete, haien hurbileko izaera zaintzeko; haien garapena sustatzeko leku ireki, anitz, parte-hartzaile, horizontal, irisgarri eta inklusibo gisa; eta aldi berean, erabilera gizalegegabeak eta ondare pribatiboak saihesteko.

[Herritarren Espazioen Sareak](#) egindako [Gida honek](#) mekanismo bikoitza proposatzen du hori lortzeko. Lehenik eta behin, eskuragarri dauden espazioen katalogo bat egingo da (ahal dela, udal-jabetzako espazioak; bestela, beste administrazio edo jabe batzuekin negoziatuko da, eta erosketa, lagapena, trukea edo desjabetzea baloratuko da). Eta, bigarrenik, jarraipenerako mahai bat eratuko da, elkarriketa eta eskumen gaitasuna izango duena, hainbat gobernu-arloz, udal-teknikariez eta bertako Herritarren Espazioen Sareko ordezkaritza zabalaz osatua. Mahai horretan, eskura dauden espazio publikoak edo herritarren espazioekin bat etortzea bilatuko da, eta kudeaketa-eredua eta administrazioarekiko harreman-eredua definitzea ere, hitzarmen bat sinatuta (lagapen-subjektuak, gobernantza-ereduak, jarduerak, horniduren finantzaketa, obrak... etab definitzeko).

5. Etorkizunera begira

Bioaniztasuna galtzea, klima-aldaketa, baliabideak agortzea eta abarren ondorioz, aldaketa ugari gertatzen ari dira (eta gertatuko dira) egungo ereduari. Kolapso ekologikoak ezinbestean eraldatu beharreko egoera baten kokatu gaitu. Sistema sozioekonomikoaren dimentsio anitzeko krisia, bizitza-krisia da. Aldaketen aurrean erresilientzia eraikitzen saiatzera behar-tzen gaitu, baita trantsizio ekosozialaren erantzule egitera ere, justizia sozioekonomikoko eta bizitza kolektiboa babesteko irizpideen arabera zuzentzen saiatzeko. Dokumentu hau bukatzeko unean, COVID-19aren osasun-krisiaren deseskalatze fasean, are nabarmenagoa bihurtu da egoeraren larritasuna.

Udalaren zeregina funtsezkoa da orrialde hauetan landu ditugun sektoreetan (elikadura, energia, ekonomia soziala, zaintza). Baina zeregin hori ezin izango da gauzatu, baldin eta modu atomizatuan diagnostikatzeko, esku hartzeko eta funtzionatzeko joerari eusten bazaio, erakunde publikoetan oso ohikoa baita joera hori. Premiazkoa da trantsizio-ardatzak artikulatzea, eraldaketa errealeak errazteko. Errealitatearen eta martxan dauden prozesuen konplexutasunak ikuspegi integralago bat hartzera behartzen gaitu, sektoreen arteko harremanak eta loturak ikusteko. Udalerriek lurralde osoari erreparatu behar diote, interdependentziaren eta ekodependentziaren ikuspegitik. Horretarako, udalek beste egiturak eta lanerako moduak artikulatu behar dituzte, sailen eta lan-arloen arteko truke eta koordinaziorako espazioak, zatiketari eta sektoreei aurre egin ahal izateko eta garatutako politika publiko guztiei zentzu koherentea emateko.

Esperimentatzeko eta berritzeko unea ere izango da. Eraldatu egin behar dira gauzak egiteko eta publikoa dena ulertzeko modu asko, eta zentzu horretan, funtsezkoa da publiko-komunitarioaren arteko lotura sendotzeko beharra. Dokumentu honetan gure ustez inspiratzaileak izan daitezkeen hainbat esperientzia jasotzen saiatu gara. Udalerrriak esperientzia horiei buruz gehiago ikertzera motibatu nahi ditugu, esperientzia horien ikaskuntzak zehatzago ezagutzera, hutsetik ez hasteko. Eta, batez ere, ideia hau helarazi nahi dugu: batzuetan erraza ez den arren, posible da orrialde hauetan aipatu ditugun bestelako politikak praktikan jartzea, borondatez eta, batzuetan, ezinbestean, saiakuntza eta errakuntza bidez.

Etorkizuna zalantzarik betea dagoen arren, gaur egun ditugun ziurtasun urrien artean, lurraldeek hartuko duten zentraltasuna dago. Tokian-tokian egiten duguna funtsezkoa izango da aldaketa sistemikoak hartuko duen forma zehazteko. Aldi berean, mundu globalizatu batean bizi gara, non lankidetzara eta saretze lana funtsezkoak diren; gure erresilientzia ere beste lurraldeen egokitzeko gaitasunaren arabera da, eta herrien arteko elkartzasuna inoiz baino garrantzitsuagoa da. Horrek guztiak "lokalismo ireki" edo "lokalismo kosmopolita" baten alde egitera garamatza, gida honetan jasotako apustuak (birokalizazioa, zirkuitu laburrak, komunitate erantzunkidea) eta beste lurralde batzuekiko etengabeko irekitasuneko eta trukerako jarrera eta aniztasunari harrera egiteko jarrera uztartzeko. Hurbilekoa sustatzea ez da mugen arabera; aitzitik, prozesuen eskalaren desazkunderaren eta pertsonen arteko zuzeneko loturak sustatzearen zentzua dauka.

Esperientzia jakin batzuek aldaketarako dimentsio askori heltzeko gaitasuna dute, eta gainera, lurraldean errotuta daude. Horren adibide dugu [euskoa](#), 2012an Ipar Euskal Herrian sortutako tokiko txanpona. Helburuen artean garapen eko-arduratsua bultzatzea, ekonomia birkokatzea, erabiltzaileen arteko lotura eratzea eta euskara sustatzea daude. Hizkuntza indartzea, aldi berean, helburua eta tresna da, komunitate zentzua eta lurraldearekiko lotura ematen dituelako. Baiona okin batek [NAIZen](#) erreportaje batean adierazi bezala: “Norbaitek euskoekin ordaintzen badit, euskaraz egiten diot, horrek lotura nabarmena sortzen du”. Hizkuntzak kohesio-elementu gisa funtzionatzen du, eta tokiko sare sozioekonomikoarekiko konpromiso kolektiboa errazten du. 2018ko amaieran, euskoa Europako tokiko txanponik garrantzitsuenen bihurtu zen zirkulazio bolumenari dagokionez, milioi bat eurotik gorakoa baita.

Halaber, Artea proiektuak, izen bereko herrian kokatuak, tokikoaren alde egiten du irekitasunaren, elkartasunaren eta aniztasunaren ikuspegia txertatuta. Migratuei eta errefuxiatuei harrera egiteko proiektua da, bi etxetan kokatua. Lehena 2016an lortu zuten, plaza nagusiko etxetzar zahar bat erabiltzeko udalaren lehiaketa irabazita. Bigarren etxea ondoren alokatu zuten. Bertan, landetxea, kafetegi-jatetxea, arropa konpontzeko denda eta tokiko produktu agroekologikoen denda daude. Etxebizitza, bizikidetzak eta sare sozioekonomikoa uztartzen dituen proiektua da, hainbat sektoretan (jatetxea, artisautza, merkataritza eta agroekologia). Hamar nazionalitate baino gehiagoko pertsonak bizi dira bertan. Tokiko bizitza globaltasunera irekita nola berreraiki erakusten digu.

Gida honetako azken mezu gisa, azpimarratu nahi dugu lankidetzak aniztasuna errespetatu behar duela, eta horizontalak izan behar duela. Abian dauden ekimen asko inspiratzaileak izan daitezke, baina testuinguru bakoitza ezberdina da, eta ez dago konponbide bakar bat. Erantzunak homogeneizatzen dituzten ereduak saihestu behar ditugu; herri bakoitzak bere bidea aurkitzeko lan egin behar du. Eta horretara gonbidatzen zaituztegu.